

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ESPAINIAKO ETA EUSKADIKO SISTEMA POLITIKOA

Politika Zientzia eta Kudeaketa Publikoa
2020-21 ikasturtea

Irakaslea: Jon Azkune Torres

1.GAIA: ESPAINIAKO ESTATUAREN ERAIKUNTZA ETA PROZESU KONSTITUZIOGILEA.

SARRERA ETA MARKO TEORIKOA

Gizarte Zientzietan diziplina ezberdinak daude, konfigurazio epistemologiko konplexua baitute (Foucault). Joera ezberdinak daude, bakoitzak berea garatu eta haien artean banaturik daude, besteekin harremanik izan gabe (Almond). Horri banaturiko mailen metafora deritzo.

Banaturiko mailak / teorizazio prozesua.

Abstrakzioa	Enpirizismoa
Egiturak	Aktoreak
Estatua	Jendartea

Honako hauek harremanetan daude haien artean. Batetik, abstrakzioaren falazia erabiltzen da norbere argudioak indartzeko, enpirizismotik berriz, zientifikotasun edo oinarri erralik eza egozten zaio abstrakzioari.

Biak dira beharrezkoak: Egiturek guztia baldintzatzen dute, eta aktoreak horren menpeko dira. Baina aktoreek egiturak sortzen dituzte aldi berean.

Foucaultek jakintza sistema modernoan hiru eremu nagusi bereizten ditu. Zein da benetako zientzia?

Robert Coxek bi bide aurkezten ditu:


PROBLEM SOLVING	CRITICAL THEORY
<ul style="list-style-type: none">- Teoriaren izaera neutroa- Errealitatea emana zaigun moduan hartu eta onartu- Existitzen diren indar harreman eta erakundeak marko bakartzat- Gatazkak era isolatuan aztertu, diziplinak banatuz	<ul style="list-style-type: none">- Teoria denbora eta espazioan (gizartean) kokatu- Teorizazio prozesuaren garrantzia- Egungo ordena eta indar harremanen jatorria (izaera soziala) aztertu- Gatazken arteko lotura eta elkarguneak aztertu

Demokrazia: greziar jatorria, “herriaren gobernu.”

Platonek zioenez, politikan lanean adituak izan behar dira gobernari onak izateko. Gobernatzea arte bat bada, bakarrik gutxi batzuek egin dezakete hori eta horregatik demokrazia absurdotzat edota irrazionaltzat jotze du Platonek. Ikuspegi elitista. Teknokraziaren faltsutasuna.

Demokrazia aintzinako greziako polisetan sortu zen eta garatuz joan da. Erabaki kolektiboak hartzerakoan gatazkak sortzen dira, eztabaida sortzen da (interesak etb). Nortzuk dute erabakitze eskubidea? Gehiengoak erabakitzen du? Zein da esparrua? Galdera hauen erantzuna gatazkatsua izan daiteke eta demokrazia konplexu bilaka dezake.

Zer da demokrazia? Enrique Dussel + boterea.



Demokraziaz hitz egiterakoan “autoritas” kontuan izan behar dugu eta “potentia” (herria), bertan dago boterearen jatorria. Erakundeetako botere politiko minimo bat beharrezkoa da ordezkari batekin (potestas). Goiko eskemak bi zirkulu jarrituko ditu positiboa demokrazia bermatu daitekeenean eta negatiboa aldiz ala ematen ez denean.

Tillyren pentsamendua demokraziaren inguruan. 4 definizio desberdin identifikatzen ditu berak, joerak azaltzen ditu, baina hau eztabaida da, ez bere pentsamendua.

1-Definizio konstituzionalak:

Konstituzioak diotenaren arabera herrialde bat demokratikoa den edo ez. Konstituzio bat demokratikoa izateko minimo batzuk eskatzen ditu. Konstituzioan du oinarri “lege gorena” baina, ez ditu aintzat hartzen konstituziotik haratago dauden beste politikak eta faktore desberdinak.

2-Definizio sustantiboak:

Demokrazia bat emaitzen arabera epaitzen du: termino sozioekonomikoetan. Pobrezia handia bada, ez litzateke demokratikoa. Termino maximalistak. Kasu honetan, edukiei ematen zaie garrantzia. Tillyrentzako honako hau aurrerapauso bat izago litzateke baina kasu askotan ez da nahikoa (arbitraritatea dago, eskubide guztiak ez dira errespetatzen...)

3-Prozedurazko definizioak:

Hauteskundeak, lehiakortasuna... jartzen dute arreta. Robert Dall-ek definituriko poliarkia. Minimalistak dira. Kasu honetan hauteskundeak onesten dira (horrela, gutxigorabeherazko demokrazia bat ematen da). Hala ere Tillyrentzako ez da nahikoa izango.

4-Prozesuzko definizioak:

Demokraziaren definizioa ez da estatikoa, prozesu bat baizik. Adibidez, herritar guztiek parte-hartzeko aukera efektiboa, arauak argi izatea. Honako ikuspegi hau Robert Dahl autoreak garatu du: demokrazia poliarkikoa. Kasu hau, Tillyrentzako aurrerapausoa izango da, baina ez du defendatzen (Parte hartze efektiboa dago?).

Robert Dahlen demokrazia poliarkikoa:

Prozesuko bost irizpide:

- 1) Parte-hartze efektiboa
- 2) Boto berdintasuna
- 3) Ulermen argia
- 4) Agendaren kontrola (herriarena izan behar du)
- 5) Adin nagusien barneratzea.

Sei erakunde:

- 1) Hautatutako karguak
- 2) Hauteskunde libreak
- 3) Adierazpen askatasuna
- 4) Informazio iturri alternatiboak
- 5) Elkartzeko autonomia
- 6) Hiritartasun inkusiboa

Zein da prozesuzko definizioaren arazoa? Momentuko argazki bat ematen digu, ez digu garapenik eskaitzen garapena aztertzeko, demokrazia maila aztertzeko.

Tillyk demokratizazioaren 4 dimetsioak ezartzen ditu.

- 1) Zabalera: ahalik eta herritarren gehiengoari eragin. (Eskubide guztiak ditut?)
- 2) Berdintasuna: Herritarrak berdina dira?
- 3) Babesa: Estatuaren bidegabekeriaren aurkari.
- 4) Elkarren artean loteslea den kontsulta: Funtzionario publikoek obligazio argiak eta betegarriak dituztenean eta herritar guztiak berdina tratatzen dituztenean (adib: eroskeriak edo sobornorik behar ez izatea). Zein neurritan errespetatzen den herriaren borondatea.

Tilly ez zaigu ari demokraziaz soilik, demokratizazioa eta desdemokratizazioaz ari da. Demokrazia prozesu gatazkatsu gisa aztertzen du berak, ez estatikoki.

Estatuaren gaitasuna:

Tilly-ren aburuz, soilik Estatu indartsu batek segurtatu dezake kontsulta babestua, bere lurraldeko herritar guztiei berdintasunez eskubide politikoak eta askatasun zibilak segurtatzen dizkien heinean; eta biolentzia legitimoarekin saihesten duenean agente ez estatalek (armatuak edo ez) herritarren eskubideak mugatzea.

Herritarrek estatuarekin harremanak izateko, eskaerak egiteko eta erantzunak izateko duen gaitasuna.

Lau estatu mota:

- Gaitasun handiko estatuak eta ez demokratikoak: Adibidez, Txina.
- Gaitasun baxuko estatuak eta ez demokratikoak: Adibidez, Somalia edo Haiti.
- Gaitasun handiko estatuak eta demokratikoak: Adibidez, Suedia.
- Gaitasun baxuko estatuak eta demokratikoak: Adibidez, Jamaika eta Belgika.

Prozesu historikoek bultzada demokratizatzaile eta desdemokratizatzaileak izan ditzakete.

Tilly-k hiru prozesu harremantzen ditu demokratizazio edo desdemokratizazio dagoen aztertzeko:

1. Estatuaren lurraldeko hiru botere klasikoen monopolioa (bortxa legitimoa, zerga ordaintzea eta justizia) lehiatu egiten dituzten botere zentro autonomoak edota bortxazkoak ezabatu ahal izatea. → Hala nola, honen barruan sartzen dira: armada, eliza eta gaur egun lobbyak.

2. Konfiantza sareak politika publikoetan integratzea lortzen du. (adb: kaziqismoa, marak, talde erlijiosoak...) Taldetxoak sortzen dira egunerokotasunean eragina dutenak. Tillyren aburz nolabait konfiantza sare hauek ezabatu behar direla dio.

3. Isolatu egiten ditu desberdintasunak (arrazakoak, erlijiosoak, generokoak etab.) politika publikoetatik.

Demokratizazioa eta desdemokratizazioa:

Erregimen bat demokratikoa da herritarren eta estatuaren arteko harreman politikoa elkarren arteko kontsulta lotesle, zabal, berdina eta babestuan oinarritzen denean. Demokratizazioa beraz, elkarren arteko kontsulta lotesleagoa, babestuagoa, berdinaagoa eta zabalagoa doan mugimendu netoa. Desdemokratizazioak kontrako mugimendua eragiten du, elkarren artean hain loteslea ez den kontsulta, babes gutxiagoa duena, berdintasun txikiagoa eta zabalera txikiagoa duena eraginez.

Demokratizazioaren irizpideak:

1. Herritartasuna orokorra, berdina eta autonomoa. Herri-subjektua (+/- zabaltasuna/berdintasuna)
2. Gobernuaren osaketa eta jardueraren inguruko kontsulta loteslea. Kontrola-gida (+/- kontsulta)
3. Gobernuaren arbitrarietatearen aurreko herritarren babesia.

Maila hau zaila da gizarte mugimendurik gabe eta zaila aldi berean estatuaren gaitasunik gabe. Demokrazia maila maximoa: kontsulta babestua.

Tillyren demokratizazio eraginkorra eta demokratizatorako bideak:




Figura 2.1 La democratización efectiva




Figura 2.2 Vía de Estado fuerte versus vía de Estado débil hacia la democracia

Antonio Gramsci: Estatu hedatuaren eta bloke historikoaren terminoak.

Marx eta Leninen ikuspegiak gainditu zituen, instrumentalismoaren aurkako jarrera: Estatu ez da klase baten menpe/eskura dagoen tresna. Abstrakzioetatik harago, Estatuaren azterketa zehatza egin nahi izan zuen.

Praxia eta ikuspegi estrategikoa bere abiapuntua: Nola egin iraultza mendebaldean?
Estatuek krisi ekonomiko eta politikoei aurre egin behar zioten garaian.

Estatu hedatuaren ikuspegia:

jendarte politikoa (gobernu eta koertzio organoak) + jendarte zibila (estatutik at, hegemonia)

Jendarte zibilean erakunde konplexuak daude, klase zuzendariaren batasuna sortu eta klase subalternoaren adostasuna eraiki dezaketenak. Jendarte zibilak lubaki sendoak ditu.

Hegemonia: zuzendu edo gidatu

Lenin eta Gramscik Estatuaren egitura politikoa vs gizarte zibilaren lehentasuna. Leninek hegemonia estatuaren aparatuak hartzeko baliatzen zuen, klase aliantzak beharrezkoak ziren honetarako. Errusian estatu menderakuntza zuzena zegoen, ordena soziala errepresioaren bidez bermatzen zen. Aldiz, Gramsci mendebaldeko herrialde batean bizi zen, gutxiengo askatasunak onartzen ziren, eragile politiko ezberdinak... Orduan, gizarte zibil sendoagoa zegoen mendebaldeko herrietan. Beraz, krisi garaietan boterea dutenek ez dute hau hain erraz galtzen.

Hegemonia: proiektu etiko-politikoa zeinaren bidez klase batek bere interes korporatiboak alde batera utzi eta adostasunaren bidez eta unibertsal partikularraren gainetik kokatuz, izaera nazionalako lidergoa eraikitzen duen. Proiektu hegemoniko arrakastatsu batek alde aurretik talde partikular baten proiektua zena, jendarteak berau era "natural" batean "apolitikotzat" edo "unibertsaltzat" jotzea lortuko du: "zentzu komuna" izatea lortuko du.

Posizio gerra: boterearen lorpena jendartean zabaltzen den "erreforma intelektual eta moral" baten ondorioa. Klase korporatibismotik, proiektu nazional herritarrera. Gizarte zibilean ideia garaileak errotu. Napoleonen adibidea.

Bloke historikoa: Egitura ekonomikoa eta gainegitura ideologikoaren artikulazioaren ondorioa da. Ideologia organikoen eta ideologia arbitrarioen artean ezberdinu. Jendarte zibila konplexua da, ez dago homogenitaterik ezta dikotomiarik ere. Historikoa, ez dago aurrez aurretik definiturik, koiunturala da, hautu politiko/strategikoen ondorioa, hori dela eta momentu zehatzetan elkartu edo banatu daiteke.

Boterean, botere instituzionala, ekonomiko + kulturala nagusitzen da.

Talde sozial ezberdinak, bere bizitza historikoaren uneren batean, beraien alderdi tradizionaletatik banatzen dira (alderdi egiturak, eremu parlamentaria, prentsa...). Burokraziaren (zibila + militarra), botere finantziarien, Elizaren eta orohar iritzi publikoaren kontrolatik at dauden egituren indartze prozesu bat ematen da: klase zuzendarien hegemoniaren krisia.

Proiektu garrantzitsu batean kale egiten dutelako (gerra batean adb), herritar masak (langileak eta burguesia txikiaren intelektualak) bat-batean pasibotasun egoeratik jarrera aktibo batera igarotzean. Estatu egiturek ez dute herritarren eskaera ezberdinei erantzuteko gaitasunik.

Mobilizazioak handitu: iraultza azken puntua.

Autoritate krisia handitu: hegemonia krisia + estatu krisia.

ESPAINIAKO ESTATUAREN GARAPEN POLITIKO ETA INSTITUZIONALA (1808-1931)

.Espainiako Estatu eta nazio eraikuntza/garapeneko eztabaidaguneak:

- Arazo demokratikoa: soberania, sufragioa
- Arazo monarkikoa: Monarkia/Errepublika
- Arazo erlijiosoa: Estatuaren konfesionaltasuna
- Arazo militarra: Esku-hartzea.
- Arazo nazionala: nazio batasuna eta aniztasuna
- Arazo soziala: desberdintasuna eta iraultza

Erregimen zaharraren krisia:

XIX. mende hasieran, Carlos IV.aren garaian, erregimen krisia hasi zen: monarkiak zilegitasuna galdu zuen. Kanpo politikan Frantziaren menpe zegoen: Fontainebleauko Tratatuak. Frantzia eta Erresuma Batuan lehian zeuden bi potentzia ziren eta Napoleonek Europako herrialdeei Erresuma Batuarekin ez negoziatzeko agindua ezarri zien. Portugalek ez zuen agindu hau bete. Frantziar armada osoa Espainiatik pasatzea onartu zuen Godoy-k. Espainiar hiri estrategikoen kontrola hartu zuen Frantziar armadak, tratatu honen bidez. Monarkia absolutuaren etapa borbonikoak amaiera du 1808 Baionako Estatutuarekin: Jose Bonaparte Espainiako errege berria.

Estatutu hau ez da konstituzio liberal bat, baina bada espainiar Estatuan liberalismoaren lehen aztarna. Liberalizazio saiakera apal bat da, halere, status quo-a mantentzen du Espainia eta Frantziaren arteko aliantza batekin: sasi-konstituzio demokratiko bat da (ez da berez liberal-demokratikoa, besteak beste, ez zaiolako inolako errefrentziak egiten herri soberaniari edota botere banaketari).

Berrikuntzen artean: liberalismo epela. Estatuaren arbitrarietateari eta monarkiari mugak jartzen zaizkio: oinarrizko eskubideak ezagutu, habeas corpus, erakunde ordezkatzailleak...

1812 Cadizeko Konstituzioa:

Espainiako konstituzionalismoari hasiera eman zitzaion Cadizeko Konstituzioarekin (Gorteak 1810-14 bitartean bildu ziren). Monarkia Absolutua abolitu eta monarkia konstituzional demokratiko bat sartzen da indarrean:

- Soberania nazionala
- Botere banaketa: exekutiboa erregeak, legegilea Gorteek eta erregeak, judiziala Auzitegiek foru militar eta eliztarrarekin.
- Zeharkako sufragio unibertsala gizonezkoentzat, bi urteetako mandatua,
- Oinarrizko eskubideen aitortzea,
- Inkisizioaren abolizioa
- Gremio eta jaurgoen ezabatzea
- Bi erakunde mantendu: monarkia eta erlijioa (estatua katoliko bezala mantentzen du).

Fernando VII.aren erregimen absolutista: Seiurteko Absolutista eta Hamarkada erdeingarria

Diputatu absolutistek monarkia absolutuaren berrezartzearen eta Erregimen Zaharraren alde egin zuten. Pertsiarren Manifestuko eskariarekin bat, Fernando VII. tronura itzultzen da, ezgaitu egiten du Cadizeko Konstituzioa, helburua absolutismora bueltatzea da (errestaurazio absolutista), kontraerreformak... Cleavage-a: liberalak vs absolutistak. Zaharra eta berriaren arteko talka zuzena ikus daiteke.

Herriaren sektore askok armak dituzte eta armadan sektore liberal bat garatzen hasten da (Riego jenerala...) eta altxamendu batekin Las Cabezas de San Juanen (Cadizeko Konstituzioaren errestaurazioa): 1820-1823 artean Hirurteko liberala ezartzen da. Burgesia sekularrenak ideologia liberala jasotzen hasten dira. Epealdi konstituzionala berriro amaitzen da europar herrialde desberdinetako mertzenario eta frantses boluntarioekin: San Luisen ehun mila semeak.

1823-1833: Hamarkada erdeinagarria

Riego urkatua da. Fernando VIIak konstituzioko elementu batzuk hartzen ditu: bloke absolutistak homogenitatea galdu eta hautsi egiten da: karlismoa sortzen da.

Testuinguru horretan, aipatzekoa da liberalismo erreformistaren ildoak, iraultza liberalen eta Erregimen Zaharraren arteko hirugarren bide bat proposatzen zuena (Burkeren liberalismo kontserbadorea oinarri: kontratu soziala, sustrai historiko sakonen garrantzia, iraultzen aurka eta erreforma gradualen alde, merkatu askea...).

Jovellanos izan zen euren lehenengo buru ezagunena, "Jovellanista" izenez ere ezagunak dira

Estatu liberalaren sorrera: 1833-1868

Maria Cristina de Borbón erregeordetza (1833-1840)

Garai honetan liberalen alternatza ematen da: kontserbadoreak edo moderatuak eta progresistak. Lehenek burgesia txikiaren babesa dute eta bigarrenek armada eta oligarkiarena. Lehenak sufragio zentsitarioa eta bigarrenek ahalik eta unibertsalena. Burujabetzan: progresistak burujabetza nazionala eta moderatuek burujabetza hori mugatu eta erregearena ere aitortu.

1834an Estatu Erreala sinatzen da liberalak kontentatzeko: ganbera biko boterea aitortzen ditu (ganbera bat erregeak aukeratu eta bestea herritarren 0,15ak). Baina ezer ez gehiagorik ez, ezer eskubide eta botere banaketari dagokionean. Burujabetza nazionalik ez.

Bloke absolutista – Carlos Maria Isidro, Fernando VII.aren anaiaren aldekoak.

Bloke liberala – Isabelen aldekoak. Liberalek homogenizazio nazional prozesu bat baesten zuten askatasunaren eta berdintasunaren berme gisa, beraz foruak deuseztatu behar ziren. Horregatik, euskal lurretan karlismoa oso indartsua izan zen.

Garai honetan lehen gerra karlista jazo zen.

1833an probintzia eta erregioen banaketa ematen da, egun ezagutzen dugun mapa egonkortu.

- Zentralizazioa eta Foruen desagertzea sustatu
- Probintzien sorrera sustatu
- Gobernu zentralaren menpeko Gobernadore Zibila

1836an 1812ko konstituzioa eskatuz altxamendua/matxinada: La Granjako “Sargentada”.

1837eko Konstituzio liberala: konfesionaltasun katolikoa ñabartzen du. Ganbera biko kortea (Senatua eta Kongresua) eta sufragio zuzena Kongresurako. Konstituzio honek erregimen liberala kontsolidatzen laguntzen du. Absolutismora atzera bueltarik ez dago. Talde aurrerakoi eta moderatuak antolatzen dira.

Lehen Gerra Karlista irabazi ostean, liberalen aldeko Espartero jeneralaren erregeordetza hasi zen (1841-43).

- Nafarroako erresuma abolitu zen: foru probintzia eta Nafarroako Lege Hitzartua (Ley Paccionada).
- Elizaren ondasunak desamortizatu ziren.
- Gobernu pertsonalista eta zurrunaren ondorioz militar zein burgesiaren babesa galdu.

Isabel II.aren erregealdia.

Gorabeherako etapa izan zen, proiektu politiko bakoitzak aurreko proiektuek landutakoa desegiten saiatzen dira.

- 1844-54: Hamarraldi moderatua
- 1854-56: Biurteko aurrerakoia
- 1856-68: Batasun Liberalaren gobernu

Flanko erradikalaren mekanismo gisa ezagutzen dena gertatu zela esan daiteke: eragile politiko gehienek zentratua den posizio batekiko adostasuna lortzen dute, alde bietako erradikalenak albo batera utziz.

Liberal aurrerakoi demokratikoenak	Liberal moderatu kontserbadoreenak	Karlistak
Sufragio unibertsala Burujaetza nazionala Demokrazia sakonagoa Errepublikazaleak	Sufragio mugatua Burujaetza nazionalik ez Botere banaketarik ez Erregearen beto eskubidea	Antiliberalak Kontserbadoreak Katolikoak Foruzaleak

Seiurteko Demokratikoa (1868-1874):

1868an, “La Gloriosa” Iraultzarekin Seiurteko Demokratikoa (1868-1874) hasten da. Prim, Serrano... zuzendu zuten eta liberalismo aurrerakoiaren eta erradikalaren aurrerapausoa izan zen.

1873ra artekoa, fase aurrerakoi gisa ezagutzen da. 1869an Konstituzio berri bat onartu zuten:

- Sufragio unibertsalez aukeratutako gorte konstituziogileak
- Monarkia Demokratiko eta Parlamentaria (burujabetza nazionala)
- Ganbera biko parlamentua: Sufragio unibertsala kongresuan eta Lurraldeak senatuan.
- Eskubide eta askatasun zabalak: erlijioa eta kontzientzia, elkarte eta bilera askatasuna...

Horrez gain, erreforma ekonomikoak abiatu zituzten: pezeta txanpon nazionala eta ,erkatu askatasuna .

Arazoak ugariak izan ziren: Guda Karlista (1872-1876), Kubako Guda, gatazka sozialak...

1871n Amadeo Saboiakoaren erregealdia hasi zen. Arazo asko izan zuten: ahultasuna eta babes txikia, oposizio zabala (karlistak, errepublikarrak, alfonsinoak...), liberalen arteko lehia, Gerra Karlista, Kubako sezesionismoa... 1873ko otsailaren 11ean bere ekimen propioaren bidez abdikatu zuen.

Horrela, Espainiako I. Errepublika ezarri zen. 11 hilabete iraun zuen, lau presidente egon ziren: Figueras, Pi y Margall, Salmeron eta Castelar. Lehen pauso demokratizatzaile ausarta Espainiako historian. Errepublikar eta ezkertiarren koalizioaren ondorio izan zen. Langile mugimendua errotzen hasten da ahulki bada ere Espainian. Absolutismo-liberalismo cleavage klasikoaren gainetik langile mugimenduarena hasten da agertzen.

Sei urteko demokratikoaren porrota:


Proiektu aniztasuna:

- Proiektu liberal argia: Askatasun demokratiko zabalak + kapitalismo ekonomikoa. Amadeo I. aren garaian saiatu baina porrot egin. Primen eraiketa funtsezko aldagaia.
- Errepublika demokratikoaren proiektua: Askatasun zabalagoak eta Estatuaren interbentzionismoa. I Errepublikan saiatu baina errepublikarren banaketaren ondorioz porrot egin.

Beste arazoak

- Hiru gerrari aurre egin: Karlista, Kuba eta Kantonalista.
- Militarrek zuzenean eta zeharka egoera kontrolatu.
- Ezkerreko oposizioaren indartzea: langile mugimenduaren sorrera (baina oinarri sozial ahula).
- Eskumako oposizioaren indartzea: Alfonsinoak indartu.

Laburpena



Europako ziklo iraultzaileen baitan			
<p>1820ko ziklo iraultzailea:</p> <p>Eragina Mediterraneoan baina mugatua: Absolutistak nagusitu</p>	<p>1830eko ziklo iraultzailea:</p> <p>Frantzia, Belgika, Espainia, Portugal. Liberalismo Kontserbadorea</p>	<p>1848ko ziklo iraultzailea:</p> <p>Frantzia, Prusia, Austria-Hungria, Konfederazio Germanikoa... Langile Klasearen parte hartzea. Erantzun Kontserbadorea</p>	<p>1870eko ziklo iraultzailea:</p> <p>Italia eta Alemania batu, Frantziar Gerra eta Komuna, Espainiar iraultza... Liberalismo aurrerakoa, nazionalismoa, langile mugimendua</p>

Errestaurazio borboitarra (1874-1931)

I. Errepublikamaitu zen Borboitarrak tronura itzuliz: Alfonso XII errege. Momentu egituratzaile bat hasten da, urte luzeetarako oinarriak ezartzen baitira Canovas del Castillok gidatuta:

- 1876ko konstituzioa: zentralismoa. Euskal foralitatearen amaiera. Autonomia berri baten eraikuntza itun fiskalaren bitartez, kontzertu ekonomikoa.
- Bipartidismoa: Canovas (Kontserbadore moderatua) – Sagasta (liberal aurrerakoia).
- Oligarkia eta jauntxokeria: Hauteskunde iruzurra.

Konstituzio berriak egonkortasuna zuen helburu.

- Burujabetza partekatua: erregea + gorteak.
- 2 ganbarako gorteak: Kongresuan sufragio oso mugatua, Senatuan hauteskunderik ez.
- Erregeak botere exekutiboa: Gorteak disolbatu eta gobernko presidentea hautatu.
- Zentralismoa: Foruen abolizioa + alkateak gobernu zentralak aukeratu. Honela, estatuaren gaitasuna handitzea + batasun nazionala bultzatzea. Baina gaitasunik ez zerga sistema zentralizatu bat ezartzeko, horren ondorioz, onartu zen euskal kontzertu ekonomikoa.
- Estatu konfesional katolikoa

Momentu egituratzaileetan joera du liberalismo kontserbadorea nagusitzeko -Barne kantsituzio bat dago (ez idatzia), berdin du zein konstituzio dagoen indarrean, hau errespetatzen da (gakoa: monarkia eta gorteen arteko harremana), nazio batasunaren ideia. Kazikismoa eman zen, bozkak manipulatu, hau lotuta dago estatuaren gaitasun faltarekin (Tillyren kategoriak).

XX.mende hasierarekin errestaurazioa ahulduz doa eta geroz eta ezegonkorragoa egiten da.

- 1898ko Parisko Hitzarmena: Kuba, Puerto Rico, Filipina eta Guam AEBren esku: “Hondamen mitoa” eta “Hondamen erreala”. Erregenerazionismo mugimendua hedatzen hasten da, baita langile mugimendua ere.
- Bartzelonako aste tragikoa: 1909 an Antonio Mauraren gobernuak erresenbistak Marokora gudara bidali. Gehienak langile klasekoak ziren eta sindikatuek greba orokorrarekin erantzun zuten.
- Klima honetan errestaurazioko alderdi tradizionalak ahulduz joan, heinean alderdi errepublikazaleak eta langile mugimenduak azaltzen joan (CNT, PSOE-UGT) indartu prozesu honetan bereziki garrantzitsuak izan ziren IMG eta iraultza sobietarra (honek langile mugimendua indartu zuen.)

Gatazka sozialen testuinguruan hainbat neurri sozial jarriko dira abian: SESBren eragina, greba orokorrak... Aurrera pausoak, hala nola, jaiegunak izatea igandeak. 1910 eta 1920ko hamarkadetan krisi politikoa sakondu zen. Annualeko batailaren ostean, Espainiak Marokoren kontrola galdu zuen. Erregimen politikoaren aurkako kritika zorrotzu eta indartu ziren, lehen aipatutako guztiari gehituz.

Ezegonkortasun ekonomiko, politiko eta sozialaren aurrean, armadako zenbait sektorek, Primo de Rivera buru eta Alfonso XIII erregearen oniritziz, estatu kolpe militar bat eman zuten, 1931ra arte iraungo zuen diktadurari hasiera emanaz.

Erregimenaren lorpen ekonomikoek ez zuten erregimenaren onarpenean gainbera geldiarazi.

- Alderdi errepublikazaleak Azañaren Acción Republicana bezela eta Lerrouxen Partido Republicano Radical bezala, Alianza Republicanan bildu ziren Monarkiak diktadurari emaniko babesarekin desenkantaturik zauden hainbat monarkiko erakarriz.
- CNTek bere indarra berreskuratu zuen. Langileen lan baldintzak tamalgarriak izaten jarraitzen zuten eta langileen kontrako errepresio gogorrak urrundu egin zituen PSOE eta UGT diktaduratik, Indalecio Prietoren eskutik diktaduraren proiektua alde batera utzi zuten.
- Kataluniako burguesiak bere nahi deszentralizatzaileak frustraturik ikusten ditu ekonomian eta politikan zentralismo nabari bat ikusten denean. Horrek indartu zuen Estatuaren esku edo diktadurari loturiko enpresarioen esku zeuden oligopolioak.
- Primo de Riveraren erregimenak goi mailako jendarte katalanaren artean zuen hasierako babes galdu egin zuen diktaduraren izaera antikatalanista argi geratu zenean. Horrek ekarri zuen ezkerreko nazionalismoaren indartzea, Primo de Riveraren aurkakoak, eta horrela sortzen da ERC.
- Atsekabea armadako zenbait sektoreetara iristen da.
- 1929ko nazioarteko krisi ekonomikoa gertatzen da.

Momentu koiunturala zabaldu zen modu honetan. Espainiar krisi organikoa (Gramsciren teoriarekin loturik):

- Errestaurazioaren ezaugarri egituratzaileen agorpena: 1876ko Konstituzioa, turnismoa eta jauntxokeria
- Klase zuzendariaren hegemonia krisia.
 - Porrot politiko eta militarrek: kolonien galera zein diktaduraren beharra.
 - Klase subalvernoen “aktibazioa”
 - Herritarren eskaerei erantzuteko gaitasunik ez.
- Estatu krisia:
 - Estatu egiturei eragin: Koroa, armada, adm publikoa...
 - Eztabaidagune historikoei erantzuteko gaitasunik ez.

(Gramsci reloaded)

II. ERREPUBLIKA ETA GERRA ZIBILA (1931-39)

1931ko Udal Hauteskundeetan ostean, Errepublika aldarrikatu zen. Behin-behineko gobernu osoa, erreformak abiatu eta prozesu konstituziogile bat hasi.

Konstituzionalismo garaikidearen berritasun ugari:

- Gerra gaitzetsi egiten da gatazkak konpontzeko modu gisara.
- Weimarreko Errepublikaren inspirazioa: eskubide demokratiko + sozialak.
- Kelsenen teoriaren arabera, Auziegi konstituzional bat (edo Berme Konstituzionalaren auzitegia) sortzen da.
- Lehenengo aldiz Estatuaren deszentralizazioa ahalbideratzen du Autonomiaren sorrera aurreikusiz, hemen dago 1978ko lurralde antolaketaren aitzindaria.
- Emakumeak azaltzen hasten dira: Dolores Ibarruri “pasionaria”, Federica Montseni, Victoria Kent, Clara Campoamor... PCEn, CNTn...

• II. Errepublikaren faseak

Behin-behineko Gobernua (1931)	Biurteko aurrerakoa (1931-1933)	Biurteko eskuindarra (1934-1936)	Fronte Popularra (1936-1939)
ALCALÁ ZAMORA	ALCALÁ ZAMORA AZAÑA	ALCALÁ ZAMORA LERROUX	AZAÑA LARGO CABALLERO NEGRIN
Lehen neurriak: <ul style="list-style-type: none"> • Militarra. • Ekonomia. • Laborantza 	<ul style="list-style-type: none"> • Lan arloko erreformak (Largo Caballero). • Hezkuntza. • Laborantza (landa) erreforma. • Autonomia. • Zigor arloa eta Kartzelak (Victoria Kent). • Emakumeen botoa. • Casas Viejas 	<ul style="list-style-type: none"> • Lan arloko “kontraerreforma” • Laborantza dekretuak bertan behera. • Euskal autonomia prozesua eten. • 1934ko urria Asturiasen eta Katalunian. 	<ul style="list-style-type: none"> • Amnistia (1934ko presoak). • Laborantza erreforma. • 340 hildako.

Gerra Zibila:

Estatu kolpe eta erregimen aldaketa bat izan behar zuena gerra bat izaten bukatu zuen eta bando nazionalak luzatu egin zuen etsaiaren “garbiketa politikoa” egiteko. Gobernu errepublikarraren laguntza txikia izan zuen: SESB eta Nazioarteko Brigadak. Bando Nazionalak aldiz, Italia eta Alemania. Espainian antagonismo politikoa ez zen era demokratikoan kudeatu, era belikoan baizik. Antagonismo politikoa gerra eredura joan zen eta faxismoa nagusitu zen.

FRANKISMOA (1939-1975)

Altxamendu eta konkista militarren ondoren bukatzen da gerra: konstituzioa indargabetu eta Erresumaren Oinarrizko Legeak sartzen dira indarrean 1978ko konstituzioa onartu zen arte. Zazpi lege ziren eta trantsizio garaian zortzigarren bat egin zen Erreforma Politika bideratzeko:

- 1.- Lanaren Forua (1938): sindikatu bakarra.
- 2.- Gorteen Lege Sortzailea (1942): gorte batzuen sorrera, batzuk Frankok berak aukeratuak, beste batzuk udalek, korte familiarrek.
- 3.- Espainiarren Forua (1945): Gutxieneko eskubide batzuen garatzea baina guztiz baldintzaturik.
- 4.- Nazio Erreferendumaren Legea (1945)
- 5.- Estatuaren Buruaren Oinordekotza legea (1947)
- 6.- Mugimendu Nazionalaren Printzipioen legea (1958): ideologikoa, nazional katolizismoa)
- 7.-Estatuaren Lege Organikoa (1966)
- 8.- Erreforma Politikoaren Legea (1976) (trantsizioa)

Beraz, esan genezake diktadurak legenengo urteetan italia faxistaren eragina jaso zuela eta hara jotzen zuen, gerora apur bat “moderatu” zen BMGan Italia faxista eta Alemania naziaren porrotarekin. Azkenik, trantsizioarekin erregimen aldaketa ematen da “legetik legera” diktaduratik demokraziara.

Erregimen totalitarioa/autoritarioa: Linzen ikuspegia.

ERREGIMEN TOTALITARIOA	ERREGIMEN AUTORITARIOA
<ul style="list-style-type: none"> - Pertsona Berria (gizon berria) - Buruzagi bat, erregimen kaudillista. - Atal errepresiboak + ideologikoak. - Ideologia “totalizantea”: jendartea aldatu, pertsonen dimentsio guztietan eragin. - Estatua eta jendartea ezin dira bereiztu. - Estatu / alderdiak ekonomia eta komunikabideak kontrolatu. - Etengabeko mobilizazio politikoa. - Aldaezinak: ezinezkoa demokrazia bilakatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> - Diktadura: ordena mantendu. - Atal errepresiboak nagusitu. - Buruzagi bat, erregimen kaudillista. - Pluralismo mugatua eta erregimenak ideologia definiturik ez. - Erakundeetako parte-hartze mugatua. - Mobilizazio politiko baxua. Despolitizazioa eta apatia sustatu. - Klase ertainen agerpenarekin ahuldu. - Egonkotasun ekonomikoarekin errepresioa ahuldu. - Demokraziara trantsizioa posible.

Frankismoa autoritarioa ala totalitarioa zen?

Linzen jarraitzailek: Autoritariotzat.

- Ideologia difusoa
- Pluralismo mugatua, apatia politikoa sustatu.

Navarrok: Totalitariotzat.

- Errepresioa: maila fisiko eta ideologikoan. Hezkuntza sistema, hedabideetan. Hizkuntza, erlijioa etab. inposatu.
- Frankismoaren ideologia totalitariotzat garatu: klasea nazioa etb.
- Frankismoa = faxismoa
- Gaur egunera arteko ondorioak.

Frankismoaren faseak:

1. Autarkia gerraostea 1939-1959

- Erregimen berria: Oinarri ideologikoak. Estatua, gobernu, armada eta falangearen burua. Estatu totalitarioa.
- Errepresioa, gerrilla erbestea: Makiak.
- Nazioarteko testuingurua.
- Autarkia ekonomikoa.

Pragmatismorako aldaketak ez du bueltarik 1953an Madrileko Ituna sinatzen denean AEBekin. Gerra Hotzeko testuinguruan AEB base militarrek jartzen ditu Espainian eta trukean diru-laguntza ematen dio. Isolamendu internazionaletik atertzen lagunduko dio. Guzti horrek erabateko forma hartu zuen Eisenhower-ren bisitarekin 1959an eta teknokraten sarrerarekin eta pisu hartzearekin gibernuan (batez ere OPUSekoak).


2. Teknokrazia eta garapen ekonomikoa 1959-1975

- Erakunde eta erregimenaren egonkortzea
- Desarrollismoa: hazkunde ekonomikoa eta eraldaketa sozialak: Industrializazio fokalizatua berriro... Lana vs kapitala. Honi loturiko mugimenduen sorera: grebak, langile komisioak PCERI lotuta.
- Erregimenaren aurkako oposizioa
 - 50. Hamarkadaren amaieran eta 60. Hamarkadan aldaketa soziopolitiko eta kultural handia ematen da: belaunaldi berri batek hartzen du protagonismoa. 1968ko itzalak lagundu eta berrindartu zuena.
 - Alderdi politiko eta gizarte mugimendu berriak. CCOO sortzen da.
 - Emakumeen eskubideen aldeko borroka (1970. Hamarkadatik aurrera indartu).
 - Auzi nazionala: ETAREN sorrera.
- Krisia eta amaiera

Haustura larroak eta eztabaidagai politikoak

- Garbiketa ideologikoa: borroka eta hutsuneak oposizioan + oposizioa erbestetik.
- Mugimendu nazionalak dena irensten du.
- Antzera arazo nazioanalean. Huts egingo du karlismoak euskal probintzia guztientzat foruak berreskuratzeko kontzertu ekonomikoa...
- Nazionalkatolizismoa: muturreko kontserbadurismoa.
- Emakumeen eskubideetan atzeraldia: esparru pribatura erreklutatu
- Landa erreforma gabe geratzen da.
- Garapen industrialeko aurretiko desorekak mantendu eta indartu egiten dira.

XIX-XX-XXI. Mendeetako Espainiako sistema politikoaren bilakaera ziklikoa



Ondorio nagusiak: Europako Estatuekin konparatuta ibilbide ezberdina.


- XIX. Mendean Iraultza burgesa eta liberalismoa ahulak. / Mugimendu antiliberal indartsuak: Gerra/Estatu Kolpeak nagusitu.
- Espainiar proiektu nazionala ahula: Kanpo eratzailearen ordeztasuna eta liskarrak. EH, Katalunia, Galizia proiektu nazional alternatiboak.
- Kolonien galera Europako herrien inperialismoaren garaian. Demokratizazio prozesu orokorragotik isolatu.
- Guda zibil berantiarra izan zen eta XIX eta XX. mendeko eztabaidak mantendu ziren.
- 1978tik aurrera Europarekin lerrotatu baina “ongizate estatua” neoliberalismoaren testuinguruan heldu.

2. GAIA: PROZESU POLITIKOAREN GARAPENA ETA EREDU DEMOKRATIKO ESPAINIARRAREN EREDU NAGUSIAK.

MARKO TEORIKOA: KAPITAL METAKETA, FORDISMOA ETA POSTFORDISMOA

Marxen ekarpenak

Ekoizpenaren espirala



Txapa sasimarxista sartzen du ondorio honetara iristeko: espiral ekonomikoa ekibalentziala edo ez ekibalentziala izan daitekeela, soberakinaren (gainbalioaren) kudeaketaren arabera.

- Ekibalentziala: komunitarioki kudeatzen da jendartearen beharrak asetzeko.
- Ez ekibalentziala: gailentzen den sektoreak (ekoizp.bit. jabeak) metatzen du.

Subjektu/lanaren eta soberakinaren arteko bitartekari gisa erakunde/sistema ekonomikoak.

Kapital metaketa: D-M-D' formula erakusten digu, kapitalaren balorizazioa eta lan-indarraren esplotazioaren bidezko gainbalioaren ekoizpena azalduz.

Krisia: Kapitalari ontologikoa zaio, ez da perturbazio bat, bere esentzia baizik.

- Ekoizpenaren eta zirkulazioaren banaketa
- Kapital finantzarioa, burbuilak...
- Irabazi tasaren beheranzko joera

Metaketa erregimena eta erregulazioaren era soziala (Erregulazioaren Eskolak)

- Metaketa erregimena: ekonomiaren egonkortasuna epe mugatu batean lortzeko xedearekin, ekoizpena, kontsumoa eta banaketa antolatzeko erari egiten dio erreferentzia.
- Erregulazioaren era soziala: metaketa erregimena ondo funtzionatzea eragiten duten lege, arau, estatu formak, politika publiko eta paradigma politikoek eratzen dute. Honek orokorrean, eremu hauen arauketa zehatz bat eragingo du:

- 1) Lan harremanen arauketa.
- 2) Enpresarien estrategiak.
- 3) Txanponaren arauketa.
- 4) Estatu eta herritarren arteko adostasuna.
- 5) Nazioarteko erregimenarekiko jarrerak.

Erregulatu arren kontraesanak mantentzen dira: hauen kudeaketa ezinezkoa denean krisiak eztanda egingo du (Depresio Luzea, 1929ko, 1973ko eta 2008ko krisiak...). Krisia eta erregulazioa txanpon beraren bi aurpegi dira.

Fordismoa eta postfordismoa

FORDISMOA	POSTFORDISMOA
Masa ekoizpena	Eskala txikiko ekoizpena
Produktu estandarra	Produktu berezitua
Langile semi-kualifikatuak	Langile multi-kualifikatuak
Zeregin programatu eta finkoak	Rol malguak
Kate ekoizpena	Robotizazio eta konputerizazioa
Lantegi handiak	Lantegi txiki/ertainak

Gure irakasgaiarekin lotura: metaketa erregimenak eta erregulazio erak sistema politikoetan eragiten du.

Jule Goikoetxea:

Demokratizazioa: “herritarrak autogobernuaren bidez boteretzen dituen etengabeko prozesu politikoa” litzateke (2017:15). Herritarrak beren sistema politiko eta sozio-ekonomikoaren gobernugintzan aritzeko aldiz, teknika eta instituzio publiko diziplinario eta biopolitikoak ezinbestekoak izango dira (idem). (Tilly eta Foucault)

Demokraziaren pribatizazioa: “Demokraziaren pribatizazioak oximoron bat eman dezake; izan ere, demokraziaren bitartez esparru publikoa zabaltzen da, eta pribatizazioak, berriz, kontrako norabidean jotzen du, eta esku pribatuetan jartzen ditu eskubideak, erabakiak hartzeko ahalmena eta instituzio publikoak, bai eta ondasun kolektiboa, jakintza, osasungintza, hezkuntza, baliabide naturalak eta autoritate politikoak ere” (2017:12)

Erregulazioa, bloke historikoa eta estatu mota.

1970 hamarkadara arte: Fordismoan, ongizate estatu nazional keynesiarra

1970 hamarkadatik aurrera: Postfordismoan, lan erregimen postnazional schumpeteriarra*

* Ezaugarriak:

- Estatismo Autoritariorako joera (Poulantzas).
- Demokraziaren pribatizatorako joera (Goikoetxea).
- Nazio historikoen birsorpen demokratikoa (Goikoetxea/ Azkune).
- Estaturik gabeko nazioen orde “Estatalitate subalternoak”(Azkune).

ESPAINIAKO ARDATZ BIKO TRANTSIZIOA:

- 1) Fordismo semiperiferikotik posfordismo semiperiferikora.
- 2) Diktaduratik demokraziara

“Los aspectos políticos y económicos de la transición en España deben situarse dentro de procesos más amplios de reestructuración económica y política global y la crisis del fordismo atlántico. En este sentido, la transición española fue principalmente una transición del fordismo al posfordismo. Más específicamente, la devolución en España no puede definirse estrictamente como un simple proceso político y administrativo, sino que es estrechamente interdependiente tanto de la reestructuración posfordista de la economía española relativamente periférica (incluida su reestructuración interna y la creación de una economía vasca) como de su plena integración en la economía y las instituciones políticas europeas y mundiales”. (Calvo, 2015: 156)

Kapitalismoaren mundu mailako antolaketarekin zentro/periferia ardatzean semiperiferiaren kontzeptua sortzen da, non garapen ekonomiko mugatu bat ematen den eta zeina metaketa nukleoaren parte ez den.

Espainiako Fordismo semiperiferikoa:

- Atlantiko Iparraldeko Fordismoarekin alderatuta, izaera marjinala eta hazkunde bertutetsuaren zirkulu ahula.
- Fordismoarekin bat ez datorren erregulazioaren forma: Adib: lanaren erregulazioa, ongizatea.
- Fordismo semiperiferikoa / Estatu dependientea (Poulantzas).
- “INI” sortu arren industria ahula, atzerriko teknologia eta energiaren menpekota.
- Petrolioaren krisiak gogorrago jo.
- Burgesia eroslea (oligarkikoa) ahuldu eta erregimenaren azken urteetan Burgesia domestikoa indartu. “Queremos un país de propietarios no de proletarios”

Orain artekoa laburbilduz:

- Kapitalaren krisirako joerak: oinarri ontologikoa.
- Krisiari aurre egiteko epe ertaineko egonkortasuna: metaketa erregimena eta erregulazioaren era soziala.
- Fordismotik posfordismora metaketa erregimen eta erregulazio berria. -
- Erregulazio berrian estatu mota berria: Lan Erregimen Postnazional Schumpeteriarra.
- Estatu mota berri horretan “autonomia”, “devolution” edo “erregionalizio” moduan ezagutzen diren prozesuak orokortu.
- Autonomien Estatua, nazioarte mailan postfordismoari loturiko “Estatu mota” berriarekin bat etorri.
- Ardatz biko trantsizioaren garrantzia: diktaduratik demokraziara, fordismo semiperiferikotik postfordismora

TRANTSIZIOA ETA BERE FASEAK

1. Diktaduratik demokraziara: 1975ko azarotik (Erregea) – 1976ko uztaileira (Suárez).

Presidentea Arias Navarro. Irteera erreformista moderatua eta jarraikortasuna xedea (erregimena garai berrietara moldatu). Gatazka ugari proiektu politikoen artean: jarraikortasun osoa, aperturistak, erreformistak, hausturaren aldekoak, iraultzaileak.

Oztopo nagusiak sistema politikoaren elementuak ziren: Alderdi Ofiziala (Mugimendu Nazionalaren Kontseilua), Erreinuaren Kontseilua eta Gorteak (demokrazia organikoaren printzipioak jarraituz aukeratu)

Demokraziarako aukerak ere zabaldu ziren, ordea.

- Nazioarteko testuinguruan Espainia zen inguruko diktadura bakarra. Aliatuen presioak izan ziren Espainia NATOan eta EBN sartzeko eta euren herrietako iritzi publikoa aurka ez izateko. Europako ezkerreko alderdiek erregimenaren oposizioa babestu zuten.
- Erregimenaren barnean eliteen lerrokatze berriak izan ziren:
 - Oligarkia pragmatikoagoa eta Burgesia Domestikoa.
 - Eliza Katolikoa: barne zatiketak “apaiz gorrien” fenomenoak.
 - Armada: Unión Militar Democrática.
- Jendartean aldaketak gertatzen ari ziren, Suarez: "Elevar a la categoría política de normal, lo que a nivel de calle es plenamente normal".

2. Trantsizioaren zutabeak: 1976ko uztaile – 1977ko ekaina (hauteskundeak).

Erreforma Politikoaren Legea. Erreferendumaren ostean (1976-12-15) Suarezek oposizioko talde batzuekin zenbait erreforma adostu zituen: ia erabateko amnistia, hauteskunde arauak eta alderdi zein sindikatuen legalizazioa.

Oposizioaren desmobilizazioa jazo zen, 1977-6-15an hauteskundeak eta konstituzio ponentzia eta 1977ko urrian Moncloako Itunak.

Lege aldaketak modu kontrolatuan egiten saiatu ziren:

Erreforma Politikorako Legea

- Marko legegilea eta botere politikoa aldatu zituen erreforma politikoa aurrera eramateko. Besteak beste 1977ko hauteskunde demokratikoak deitu zituen.
- Ez zen konstituzio bat, baizik eta gutun otorgatu bat, legea ez zutelako ez herritarren ordezkariak egin ezta onartu.
- Frankismoaren tertzioen ordezkapenetik (familia, udalerrria eta sindikatua) espainiar herriaren soberaniara pasatzen da.
- Gorteak kamera bikoak bilakatzen ditu: sufragio unibertsalez hautatuak (Kongresua eta Senatua).

Hauteskunde araei buruzko Errege dekretua 1977-3-18:

- Senatuko eta Kongresuko hauteskunde prozedura arautu eta funtsean gaur egun arte mantendu. 1985ean LOREG eta ostean urtarrilaren 28ko 2/2011 lege organikoa.
- Proporzionaltasuna esplizitua: %5 hauteskunde barrera.
- Probintzia hauteskunde barrutia (txikia). 3 diputatu gutxienez probintzia bakoitzeko, proporzionaltasuna mugatu eta landa eremuei (kontserbadoreei) zein bipartidismoari mesede egin.

1977ko hauteskundeak UCDk irabazi zituen 166 diputaturekin. PSOEK 118, PCEk 19 eta APk 16.

- 1977 – 1982: Multipartidismo mugatua.
- 1982 – 1993: Hegemonia sozialista.
- 1993 – 2015: Bipartidismo inperfektua.
- 2015 – gaur egun: krisia eta Multipartidismoa

Trantsizioa eta liskarraldiaren mekanismoak.

- Aukeren Espirala: Frankoren heriotzak zabaldu, nazioarteko testuingurua (Portugal, Grezia, Europa...)
- Polarizazioa: gatazka sozial ugari.
- Flanko erradikalaren mekanismoa.
- Identitate jauzia: Europar identitatea / Beste nazio eta erregioak
- Artekaritza: elite politiko/ekonomiko frankista; oposizioko alderdi eta sindikatuak; EHko eta Kataluniako nazionalista moderatuak

Sektore politikoak eta trantsizioaren bilakaera (1975-1979)

	AURRE TRANTSIZIOA	TRANTSIZIOA	ALDERDI SISTEMA	1977ko Hauteskundeak ABS:%21	1979ko Hauteskundeak ABS:%32,6
ERREGIMENA	"BUNKERRA", FRANKISTA ERREFORMISTAK	KONTINUISTAK	AN (UN) AP (CD PP)	%0,4 %8,4-16	%2-1 %6,1-9
	TEKNOKRATAK, TOKIKO "HANDIKIAK"	ERREFORMISTAK	UCD	%38-167	%35,5-168
OPOSIZIOA	DEMOK.KRISTAUAK LIBERALAK NAZIONALISTAK SOZIAL DEMOK.	OPOSIZIO ERREFORMISTA	UDE, ID, PDC, PDP, PSD, FSD, FPDL, PSOE, PNV, CDC, PCE, PSP...	PSOE: 29,9-118 PCE: 9,3-20 PSP: 4,5-6 DCC: 0,7-2 PNV: 1,7-8 CIU: 3,7-11	%30,5-121 %10,8-23 %1,6-7 %2,7-8
	SOZIALISTAK KOMUNISTAK EZKER MUTUR. ABERTZALEAK	OPOSIZIO RUPTURISTA	LCR, LC, MC, PTE, ORT, EE...	EE: 0,3-1 ERC: 0,6-1	%0,5-1 %0,7-1 HB: %0,9-3 UPN-1/PSA-5 PAR-1/UPC-1

3. Hirugarren fasea: 1977ko ekaina - 1978ko abendua (Konstituzioa)

- Hauteskundeak UCD-k irabazi eta PCE espektatibetatik behera.
- Emakumeak Kongresuko %6 eta amnistiarik ez abortua, antisorgailu eta adulterioari loturiko delituei (mugimendu feminista prozesutik kanpo).
- Konstituzio Ponentzia martxan jarri zen,t alde parlamentari guztiekin EAJ izan ezik. 1977ko urrian Moncloako itunak (politika sozioekonomikoa).
- Konstituzioak cleavege nagusiak arautu: Monarkia vs Errepublika, Estatu vs Eliza (dibortzioa, abortoa); Kapitala vs lana; Zentro periferia.

1977ko hauteskundeak eta Txibertako elkarrizketak. Telesforo Monzonen proposamena:


- Abertzaleen arteko ekimen koordinatua eta estrategia adostua
- Hegoaldeko lau lurraldeak Autonomia Estatutu batean elkartzea
- Fronte autonomista: alderdi demokratikoak, eragile sindikal eta kulturalak.

4. Laugarren fasea: 1978ko abendua - 1982ko urria (hauteskundeak).

- Prozesu autonomikoaren hasiera.
- 1979an Hauteskunde Orokorretan UCD-k irabazi.
- 1981 Estatu Kolpe saiakera
- LOAPA.
- 1982ko urria PSOEK hauteskundeak irabazi.

1978ko Konstituzioa eta bere erakundeak.

- Esanahi juridikoa: Botere publikoen antolakuntzaren oinarria.
- Esanahi ideologiko-politikoa: Sistema demokratiko pluralista eta monarkia parlamentario (kutsu presidentzialista duena) deszentralizatuaren legitimaziorako oinarria.
- Kanpo eragin nagusienak:
 - Europar monarkiak. Koroari dagokion atalean batez ere.
 - Bonneko oinarrizko legea (1949). Exekutiboaren izaeran eta zentsura mozioaren tramitazioan.
 - Portugalgo Konstituzioa (1976). Oinarrizko eskubideen egituraketan.
 - Italiar Konstituzioa (1947). Lurralde antolaketan.



Trantsizioaren eta konstituzioaren eduki nagusiak.

- Aldaketa mugatu bat da “Kontsensuaren” izenean.
- Amnistia (ia osoa), baina Amnesia.
- Autonomia (eta estatu bateratua, federala ez), estatus ez da ezagutzen plurinazional gisa (autodeterminaziorako eskubide ez da onartzen). Euskal nazionalistak adostasunetik kanpo geratzen dira. Eskubide historikoak.
- Alderdien legalizazio baina klase politiko frankistaren jarraikortasuna, Frankok ezarritako monarkia barne.
- Armadak bermatutako Espainiar nazioaren batasuna.
- Zuzenbidezko estatu soziala, baina garapen mugatua (Moncloako Itunak 1977-10-24)

Nazioarteko testuinguruaren dimentsioa

- 1936eko estatu kolpeak laguntza ez zuzenekoa lortzen du Erresuma Batutik, eta zuzena Alemania eta Italiarengandik. Errepublikak isolatua, bakarrik SESB eta sinbolikoki Mexiko.
- Erregimenak trantsizioari ekiten dionean, Amerikako Estatu Batuen oinarrizko aliatua da Gerra hotzaren testuinguruan.
- Espainiar trantsizioak mendebaldeko blokearen egonkortasuna bermatzen zuen.

ESPAINIAR ESTATUKO DEMOKRAZIA MOTA

Almonden ikuspegitik:

- Eredu Anglosaxoia: kultura politiko homoginoa eta egonkortasuna. Aniztasun baxua. Alderdi biko sistema, hauteskunde barruti uninominalak, kolore bakarrekoko gobernua eta alternantzia. Demokrazia egonkorra.
- Eredu Europar Kontinentalak: kultura politiko zatitua. Aniztasun altua. Alderdi anitzeko sistema, eserlekuak proportzionalki, gobernu forma anitzak (koalizioak, gutxiengoan etab.), alternantzia ez dago bermaturik. Ezegonkortasuna.

Liphart eta demokrazia motak

Holanda, Suitza, Belgika eta Austria bezalako herrietan oinarrituta kontzeptu berriak sortu zituen: “Akomodazioa edo egokitzapena” eta “Demokrazia Konsoziatiboa”.

Bi demokrazien arteko sailkapena: gehiengo demokrazia vs konsoziatiboa (power-sharing). Jendartearen egitura anitzak eta eliteen arteko kolaborazioak egonkortasuna zekarren.

		GIZARTE EGITURA	
		Homogeneoa	Plurala
ELITEEN JARRERA	Koalizatzaile	Demokrazia despolitizatua	Demokrazia konsoziatiboa
	Aurkakotasunez	Demokrazia zentripetua	Demokrazia zentrifugoa

Kritikak jaso eta aurreko ereduak berrituko du:

- Kritiken artean: demokrazia konsoziatiboaren neurketak duen zehaztasun falta. Bere anbiguitasuna eta malgutasuna definizio teorikoan eta behaketa enpirikoan.
- Neurketa hobetu nahi izateak eta oro har, behaketa enpiriko hobeko bat lortu nahiak eraman zuen Lijphart Democracies (1984) lana argitaratzera.
- Hala ere, onartzen du bere asmoa demokrazia konsoziatiboa neurtzea zela baina gauza (sailkapen) berri bat atera zitzaiola: Gehiengo sistema Vs. Adostasunezko demokrazia.
- Indukzio bidezko azterketa, lehenengo ezaugarriak aztertzen ditu kasuak aztertuz. Abiatzen da gehiengo sistemarekin: Erresuma Batua (Westminster) eta Zeelanda Berria. Ondoren, adostasunezko demokraziaren bi: Belgika eta Suitza.
- “Adostasunezko demokrazia” “gehiengo demokraziaren” aurkako ezaugarriak. - 21 mendebaldeko demokrazia. 1987 espainierazko bertsioan hiru herrialde gehiago sartzen ditu: Espainia, Grezia eta Portugal.

Ezaugarriak:

1. Botere exekutiboa (gobernu mota);
2. Exekutibo-legegile harremana (gobernuaren iraupena);
3. Parlamentu mota (ganbera bitasunaren indizea);
4. Alderdi-sistemak (alderdi efektibo kopurua-Laakso eta Taagepera);
5. Dimentsio politiko kopurua;
6. Hauteskunde-sistema (desproporzionaltasuna);
7. Botere banaketa (gobernu zentralak duen %koa zergen sarreretatik);
8. Errebisio konstituzionala (idatzitik zurruntasun mailara);
9. Erreferendumak (kopurua).

Botere batuaren dimentsioa

GEHIENGO DEMOKRAZIA	ADOSTASUNEZKOA
<ul style="list-style-type: none"> - Botere exekutiboan kontzentrazioa eta kolore bakarreko gobernuak. “Gutxiengo gehiengoak”. - Exekutiboa nagusitu. - Alderdi biko sistemak. - Gehiengoan oinarritutako hauteskunde sistemak (desproporzionaltasuna). - Interes taldeen eredu pluralista 	<ul style="list-style-type: none"> - Koalizio gobernuak - Exekutibo eta legegilearen arteko simetria. - Alderdi anitzeko sistemak. - Hauteskunde sistema proportzionalak. - Banku zentral independenteak

Botere banatuaren dimentsioa

GEHIENGO DEMOKRAZIA	ADOSTASUNEZKOA
<ul style="list-style-type: none"> - Estatu unitarioak, zentralizatuak. - Ganbera bakarreko parlamentuak - Konstituzio malguak - Konstituzionaltasunaren errebisio judiziala ez baimendua - Banku zentrala exekutiboaren menpe 	<ul style="list-style-type: none"> - Estatu federalak, deszentralizatuak - Ganbera biko parlamentuak - Konstituzio zurrnak - Konstituzionaltasunaren errebisio judiziala baimendua - Banku zentral independenteak

ESPAINIA:

Botere batuaren dimentsioa.

Gobernua:

- Kolore bakarreko gobernuetarako joera handia (%100 vs %56.4 nazioartean).
- “Gutxiengo gehiengoko” gobernuetarako joera baxuagoa (%38.6 vs %64.2).
- Zer da Gutxiengo gehiengoko gobernua? Gehiengoa lortzeko hertsiki beharrezkoak diren alderdiak besterik ez elkartu.
- Korrelazioa: zenbat eta alderdi gehiago orduan eta “gutxiengo gehiengoko” gobernuak sortzeko aukera baxuagoak.
- Historikoki kolore bakarreko gobernuak (PP edo PSOE) edo “koalizioak” CIU, EAJ eta CC-rekin.
- Nazioarte mailan Estatismo Autoritariorako (Poulantzas) joera, exekutiboa indartu eta Ekonomia Ministroaren posizioa indartu.
- Exekutibo indartsua eta Gobernu Presidentearen figura: Ez da “primus inter pares” bat, gobernuburu sendoa baizik.
- Legeak garatzeko lehentasunezko rola: oposizioarekiko lehentasuna, lege-dekretua inposatzeko ahalmena adib.
- Orokorrean “botere kontzentrazioa” indartu “botere difusioaren” ordez.

Alderdiak:

- Historikoki bipartidismotik gertu, azken urteetan aldatu egin da hori.

Elkarbanatutako boteren dimentsioa.

Deszentralizazioa eta estatu mota:

- Definizio ezberdinak: semifederala, erregionala, deszentralizatu...

Ganberak:

- Ganbera bakarrekoak eta bikoak daude. Azken horietan simetrikoak/asimetrikoak eta kongruenteak/inkongruenteak.
- Espainian ganbera biko sistema: Kongresua eta Senatua
- Parlamentu asimetrikoa: Kongresuaren nagusitasuna
- Inkongruentea: Subjektua eta objektua kamararen arabera aldatu egiten dira (lurraldea eta herritarrak).

Defentsa mekanismoak:

- Konstituzio auzitegia: Konstituzioaren babeserako defentsa mekanismoa.
 - Eskumenak: Lege eta Nazioarteko Tratatuaren Konstituzioaren aurkako helegiteak, Oinarrizko Eskubide eta Askatasunen urraketen aurrean “Babes Helegitea”. (Konstituzioaren atal dogmatikoa) eta eskumen gatazkak.
 - Osaketa: 4 Kongresuak, 4 Senatuak, 2 Gobernuak, 2 Botere Judizialaren Kontseilu Orokorra. 9 urterako aukeratu eta 1/3 bat 3 urtero berritu.
- Konstituzioaren erreforma.
 - Zurruna: aldatzea oso zaila.
 - Sustatzaileak: Gobernua, gorteek edo Autonomia Erkidegoen ganbera legegileek.
 - Erreforma osoa edo garrantzitsua (oinarrizko printzipioak, askatasunak edo estatu burua) (168 art). Ganbera bakoitzean 2/3eko gehiengoa, disoluzioa, 2/3eko gehiengoa ganbera berrietan eta erreferenduma.
 - 167. artikulua: 3/5eko gehiengoa ganbera bakoitzean eta erreferenduma.

Ondorioa: Espainian eredu mixtoa

GEHIENGO DEMOKRAZIA	ADOSTASUNEZKO DEMOKRAZIA
<ul style="list-style-type: none">- Botere exekutiboan kontzentrazioa eta kolore bakarreko gobernuak. “Gutxiengo gehiengoak”- Exekutiboa nagusitu. Alderdi biko sistema inperfektua (aldatzen). Hauteskunde sistema: desproporzionala barruti txikienetan/proportzionalagoa barruti handietan.	<ul style="list-style-type: none">- Deszentralizazioa baina mugatua - Ganbera biko parlamentuak.- Konstituzio zurruna (aldatzeko zaila) - Konstituzionaltasunaren errebisio judiziala baimendua.- Banku Zentrala: independentea (Europar Banku Zentralen Sistemaren parte)

78KO ERREGIMENA: POSTFORDISMO SEMIPERIFERIKOA

Espainiar ekonomia politikoa.

1980. hamarkadan Gonzalezen gobernuak momentu egituratzailea izan zuen. 70. hamarkadan krisiak gogor jo zuen, industria ahula zegoen, turismoa, etxebizitza eta eraikuntza ziren ekonomiaren oinarriak.

Aurreko politika makroekonomikoekiko kontinuismoa eman zen:

- Nazioarteko joera: Kapitalaren mugikortasun handia, finantza sarrerak jasotzeko lehia.
- Turismoa, etxebizitza eta eraikuntza 'lehiarako oinarriak' nazioarteko testuinguruan.
- Industria are gehiago ahuldu.

Europar Erkidegoan sarrera:

- Gonzalezen gobernuak desindustrializazio partziala onartu.
- Europak diru-laguntza erraldoiak eskaini: 1986-2004 artean Espainiar BPG-aren %1a.
- Integrazioak erosketan eraldia: Alemania, Frantzia eta Italiako multinazionalak Espainiar egitura ekonomikoan kokapen estrategikoa lortu: elikagaien industria, pribatizatutako enpresak, supermerkatuen sektorea eta enpresa industrial handienak.
- Bankuak, eraikuntza enpresak eta enpresa publiko estrategikoak (Elektrizitatea eta telekomunikazioak) erosketan eraldia eraginetik kanpo mantendu ziren bakarrak.

Europak ezarritako eredu makroekonomikoa nagusitu:

- Gastu Publikoaren murrizketa.
- Inflazioaren aurkako ikuspegia.
- Lan merkatuen desregulazioa.

1988. urtean greba orokor arrakastatsua

Espainiar ekonomiak oinarri oso ahulak izan arren 4 ezaugarri bereizgarri:

- Interes tasa baxuak: kredituaren prezioak jaitsi.
- Euroa eta eurogunearen sorrera: nazioarteko aterkia eskaini eta kanpoan erosteko gaitasuna handitu.
- Europak pribatizazioetan sakontzea agindu: elektrizitatea eta telekomunikazioak.
- Latinoamerikako pribatizazioek espainiar multinazionalen ateak ireki (BBVA, Santander, Telefónica, Endesa, Repsol etab.).

1998ko Lurzoruaren Legearen garrantzia: eraikitze baimenak erraztu.

Espainiar ereduaren arrakasta: Aktiboen Prezioen Keynesianismoa.

- Keynesianismo klasikoan: administrazioek defizit publikoa sustatu (zerga bidez jasotakoa baino gehiago inbertitu) eskaria handitzeko.
- Aktiboen Prezioen Keynesianismoan: enpresa handienek eta euren aktiboetatik etekinak lortzen dituzten pertsona aberatsenek defizit pribatua bultzatu euren akzio eta

aktiboen balioa handitzearen ondorioz (adib: etxebizitza erosi.)

- Espainiar aberastasun efektua: Pertsona pribatuen aktibo finantzarien eta jabetzaren balioen hazkundearen ondorioz “zirkulu birtuosoak” mantendu soldatak eta inbertsio publikoa handitu gabe.
- Etxebizitza pribatuen jabetza %87a (AEB eta BH-n ez zuen %70a gainditu), 7 milioi “etxek” (hogar) 2 etxebizitza edo gehiago jabetzan, 1997-2007 artean etxebizitzaren balioa urtero %12 igo.
- Defizita Estatuak sustatu ordez aktore pribatuen esku geratu (defizit pribatua)

Espainiar ereduaren ondorioak:

- Produktibitatea eta lehiakortasuna galdu.
- Alemania, Frantzia eta Britainia Handiarentzat inbertsio eremuak: Higiezinaren jabetza, bigarren etxebizitza, beste eremu batzuetan inbertsioak.
- Europar produktuen salmentarako (Alemaniarenak batez ere) eremua.
- Inbertsio soziala baxua.
- Aldi baterako kontratu ugari.
- Botere blokea eta ustelkeria: Alderdi nagusiak, eraikuntza sektorea, etxebizitza eraikuntza eta bankuak.

Espainiar ereduaren krisia:

- Oinarri sendorik gabeko hazkundearen ondorioz: langabeziak gogorrago jo. - Austeritate gogorra: polarizazio soziala.
- Zorpetze pribatuari aurre egiteko: zorpetze publikoa.
- Maila politikoan: 78ko erregimenaren adostasunak kolokan:
 - 15-M: alderdi sistema.
 - Mugimendu eta gatazka ardatz berriak indartu.
 - Lurralde antolaketa: birzentralizazioa / nazio gatazkak (Katalunian bereziki). + Europar proiektua ahultzea.
 - Egitura ekonomikoaren inguruko epe luzeko hausnarketarik ez: ereduaren sakondu.
- 2016tik aurrera krisiaren kudeaketaren fase berria.

3.GAIA: AUTONOMIA-ESTATUAREN LURRALDE ANTOLAKETA

SARRERA: AURREAUTONOMIA

Autonomia Postfordismorako trantsizioaren baitan:

“The **political and economic aspects of the transition in Spain need to be situated within broader processes of global economic and political restructuring and the crisis of Atlantic Fordism. Spanish transition primarily was a transition from Fordism to Post-Fordism.** Devolution in Spain is closely interdependent with both the Post-Fordist restructuring of the relatively peripheral Spanish economy (including its internal restructuring and the creation of a Basque economy), and its full integration into the European and global economy and political institutions.” (Calvo, 2015: 156)

1977ko hauteskundeetan Katalunian autonomiaren berrezarpenaren aldeko alderdiek irabazi zuten. 1977ko irailean Lege Dekretu bidez Kataluniako aurre autonomia onartu zen.

Hauteskunde konstituziogileetatik ateratako euskal ordezkariak (Nafarrak barne) Euskal Estatutua idatziko zutela adostu zuten (Txibertako elkarrizketak gogoratu). EAJk, PSEk, ESEIk, ANV-k eta PCEk Senaturako sinatutako "Autonomiaren aldeko Hitzarmena" gauzatu, urte horretako ekainaren 19an, Euskal Parlamentariaren Asanblada eratu zuten Gernikako Juntetxean. UCD-ko Nafarroako ordezkariak parte hartzeari uko egin zioten.

Gatazkak izan ziren Nafarroan: Gobernu zentralarekin negoziatzean UCDk Nafarroa prozesutik irtetea lortu zuen. Euskal autonomia prozesura elkartzeko baldintzak Nafarroako organo foralaren onarpena eta erreferenduma ziren.

1978ko urtarrilean Lege Dekretu bidez Euskal aurre autonomia onartu zen, Euskal Kontseilu Nagusia sortuz.

Suarez en erantzuna behin-behineko autonomiaren ezarpena eta nazio eta lurralde auzia Konstituzioa eta estatutuen onarpena bideratzea izan zen. Autogobernu promesa egin eta babes gehiago bilatu zuen. Autonomia eskaerak aldi baterako apaldu eta prozesu konstituziogilera bideratu zituen.

Aurreautonomien ereduak orokortu zen, 14 erregio sortu ziren beren erakundeekin: Katalunia (29-IX-77), Euskadi (4-I-78), Galizia (16-III-78), Aragoi (17-III-78), Kanariar Uharteak (17-III-78), Herrialde Valentziarra (17-III-78), Andaluzia (27-IV-78), Balearak (13-VI-78), Extremadura (13-VI-78), Gaztela Leoi (13-VI-78), Asturias (27-VI-78), Murtzia (27-VI-78), Gaztela Mantxa (31-X-78). Salbuespenak: Madril, Kantabria, Errioxa.

Nafarroan gatazka izan zen Euskal Aurreautonomiarekin. 1982an Foruaren Hobekuntza onartu zen.

Behin behineko autonomia hauek ondorengo autonomien mapa baldintzatu zuten. Autonomia orokortu zen neurrian, zaila bihurtu zen Espainiar Konstituzioan lurralde zehatzetara mugatzea (asimetria sustatzea).

Kongresuko ponentzia: Konstituzioaren garapenerako instantzia erabakigarria.

Beste herrialdeetan nagusi ziren ereduak ukatu ziren, autodeterminazioa baztertu eta momentuko pragmatismoa hobetsi:

- Indefinizioa erabili.
- Hautuak etorkizuneko balizko akordioetara igorri (Adib: autonomien eskumenak estatutueta igorri).
- Kontraesankorrak diruditen ezaugarriak tartekatu: “Espainiako nazioaren batasun zatiezina” “espainiar guztien aberri komun eta banaezina” / “Nazionalitateak” eta “Erregioak”

KONSTITUZIOA

1978ko Konstituzioa eta bere erakundeak (2.gaiko diagrama)

1. artikulua

2. Nazioaren subiranotasuna Espainiako herrian datza, hortik sortzen dira Estatuaren botereak.

2. Artikulua

Konstituzioa Espainiako nazioaren batasun zatiezinean oinarritzen da, hura baita espainiar guztien aberri komun eta banaezina; Konstituzioak aitortu eta bermatu egiten du Espainia osatzen duten nazionalitate eta erregioen autonomia-eskubidea, bai eta horien guztien arteko elkartasuna ere.

143. artikulua

1- autonomia-eskubidea egikaritzeko, probintziek, mugakide izanik eta historia, kultura eta ekonomia ezaugarri berdintsuak edukita, uharteetako lurraldeek eta herrialde nortasun historikoa duten probintziek beren autogobernua lor dezakete, autonomia erkidegoak eratuz, titulu honetan eta kasuan kasuko estatutueta agindutakoaren arabera.

151. Artikulua


Ez dira derrigor igaro behar bost urte, baldin eta autonomia prozesuaren ekimena erabakitzen badu, 143.2 artikuluko epean, diputazio edo uharte arteko erakundeez gain, probintzia bakoitzeko udalen hiru laurdena...

II. Xedapen Iragankorra:

Lurralde batzuek iraganean autonomia estatutuen proiektuei buruz plebiszitua egin eta baiezkoa lortu zuten gero, eta, konstituzio hau aldarrikatzean, behin-behineko autonomia araubidea dutenez gero, berehalaxe joka dezakete 148. artikuluko 2. paragrafoan aginduriko moduan, baldin eta horixe erabakitzen badute ...

151. artikulua bidez prozedura azkarra eta eskumen gehiago: II. Errepublikan zehar autogobernua izan zuten erregioentzat. Andaluziak ere egin zuen.

143. artikulua bidez prozedura geldoa eta eskumen gutxiago: beste erregioentzat. 5 urte igarota eskumenak handitzeko aukera aurreikusten zen.



AUTONOMIAREN GARAPEN FASEAK

1. FASE KONSTITUZIOGILEA 1978-1981:

Estatu autonomikoaren garapena: 1979-1983 artean 17 autonomia estatutu onartu ziren. Galizia eta Andaluziako Estatutuen inguruan gatazka izan zen, Gobernua eskumenak mugatzen saiatu baina porrot egin zuen. EAE eta Kataluniaren antzekoak lortu zituzten azkenean.

2. AKORDIO AUTONOMIKOEN FASEA 1981-1992 :

Adituen txostena eta akordio autonomikoaren testuingurua:

- Suarezren dimisioa eta O23
- García de Enterrriak gidatutako adituen taldearen txostena 1981eko maiatzean: "Autonomiei buruzko adituen batzordearen txostena"
- "Café para todos" dinamika sustatu

1981eko uztailean UCD-PSOEren arteko akordio autonomikoak:

- Prozesu autonomikoaren izaera "dispositiboa" baztertu eta autonomia orokortu.
- Mapa autonomikoa itxi: zeintzuk izango ziren autonomiak eta estatutuak onartzeko prozedurak.
- Guztiek erakunde berdinak izatea ezarri (botere legegilea eta exekutiboa) eta neurri ekonomiko finantzariak.
- Eskumen maila ezberdinak: maila gorena onartu bide arineko autonomientzat (151 art) eta Kanariak, Valentzia eta Nafarroarentzat. Maila baxuagoa besteentzat.

LOAPA: Ley Orgánica de Armonización del Proceso Autonómico

- Adituen txostenean aurreikusia eta UCD eta PSOEn arteko akordioaren ondorioz.
- Harmonizazioa eta “café para todos” dinamikaren logikan.
- Eusko Jaurlaritzak, Generalitat-ak, EAJ-k eta CIU-k konstituzioaren aurkako helegitea tarteratu.
- Konstituzio Auzitegiak bere 38 artikuluetatik 14 Konstituzioaren aurkakoak zirela adierazi. Estatutuak Konstituzioaren blokearen parte moduan ulertu: ezin ziren Lege Organiko bidez mugatu.

1984 - 1992 artean (PSOEn gehiengo absolutua):

- Garapen autonomikorako beharrezkoak ziren legeak onartu.
- Eskumenen inguruko gatazkak batez ere Katalunia eta EAE-rekin: eskumenen helmena eta pendiente zeuden eskumenen transferentzia.
- 1987-1988: bide moteleko autonomien eskumenen hedapena planteatu zen.

1992tik aurrera, akordio autonomiko berriak PSOEk eta PPk sinatu zituzten.

- Eskumen maila baxuagoa zuten autonomia erkidegoen eskumenak handitu: beste erkidegoekin ia berdindu.
- 1995ean Ceuta eta Melilla gaitasun legegilerik ez duten asanblada duten “hiri autonomo” bihurtu.

3. CIU ETA EAJ-REKIN AKORDIO PARLAMENTARIAK 1993-2000

- PSOEk eta PPk gehiengo absoluturik ez zuten, akordio bilateralak egin zituzten EAJ, CIU eta CC-rekin.
- Erreformatarako ekimen txikiak (Senatuaren araudia, autonomien finantzazioa...): indar korrelazioen araberakoak gehienak.
- Transferentzia handien amaiera: unibertsitariora ez den irakaskuntza (1999).
- Lizarra Garazi eta ETA-ren su etena (1998 – 2000)

4. ALDERDI POPULARRAREN GEHIENGO ABSOLUTUA 2000-2004

- Nazionalismo Espainiar berritua.
- Estatu Paktuak PP eta PSOEn artean:
- Sistema komuneko autonomien finantzaketari dagokionez.
- Akordio Antiterrorista.
- Birzentralizazioa: hezkuntza, hizkuntza eta unibertsitateak.
- Euskal lurraldeetan polarizazioa eta gatazka.
- Katalunian: CIU – PP akordioa. 2003 Tripartit

5. PSOE ETA ZAPATEROREN GOBERNUAREN FASEA 2004-2011

Autonomia krisia sakondu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutu Berria (Ibarretxe Plana) eta Kataluniako Estatut-arekin. Gehiengo zabala hura berritzearen alde zegoen testuinguruan

Enoch Albertiren aburuz Estatut-ak 4 helburu nagusi zituen:

- Generalitat-en eskuduntza guztiak bermatzea eta eskuduntza horien aplikazioan autonomia izatea. Hau da, Pacte del Tinellen ezartzen zen moduan, autogobernu maila eta honen kalitatea handitzea.
- Estatu zentralarekin parte hartzean eta aldebikotasunean oinarritutako erlazio berriak artikulatzea.
- Kataluniarentzat finantzazio sistema berri eta justuagoa bermatzea.
- Katalunia nazio moduan onartzea eta bere oinarritzko ezaugarriak bermatzea. Horien artean, katalana berezko hizkuntza moduan babestea eta horren ondorioz sortzen diren eskubide linguistikoak bermatzea litzateke elementu azpimarragarriena Enoch Albertiren aburuz.

Erreforma prozesuak hiru pausu ditu:

- 1- Kataluniako Parlamentuan 2/3-ko babesarekin onartzea.
- 2- Espainiar Parlamentuan gehiengo osoz onartzea.
- 3- Kataluniako herritarrek erreferendum bidez onartzea.

Lehenengo fasean, hilabeteetako eztabaiden ostean CiU, PSC, ERC eta ICV EUiA-ren adostasuna jasota, Kataluniako parlamentuaren %89ko babesarekin onartu zen.

Espainiar Kongresuak ez zuen testu hura onartu. Oposizioko buru Artur Masek (CIU) eta Zapaterok (PSOE) elkarrizketa sekretu batzuen ostean, Kataluniako Parlamentuaren jatorrizko testua asko murrizten zuen akordio bat erdietsi zuten. ERC aurka agertu zen.

CiU eta PSOEn arteko akordio berria:

- Kataluniaren nazio definizioa: Testuaren artikuluetatik hitzaurrera mugitu zen definizioari balio juridikoa kenduz.
- Justizia: Espainiar Justizia administrazioak eredu deszentralizatu bat izateari uko egin zioten eta Kataluniako Auzitegi Gorena azken instantziako auzitegi izatea ere ukatu zen.
- Eskumenak: Aldebiko negoziatioetarako prozeduren zein Generalitat-aren botere eskusiboan murrizpena, besteak beste, hurrengo arlotan: hezkuntza, immigrazioa, portuak, aireportuak, industria, ikerkuntza, unibertsitateak, fundazioak, merkataritza eta tokiko administrazioak.
- Kanpo harremanetarako (adb: EB-rekin zuzenean tratatuak aztertzea, Europar hauteskundeetarako barrutia) eta finantzazio sistemarako (adb: EAE eta Nafarroako eredura hurbiltzea) aurreikusitakoa ere asko mugatu.

Akordio berriaren onarpena:

- Aldaketa hauen ostean, Espainiar Kongresu eta Senatuaren babesa jaso zuen PSOE, CIU, EAJ, IU, BNG eta CC alderdien botoari esker.
- Azkenik 2006ko ekainaren 18ko erreferendumean, CIU-k, PSC-k eta ICV-k baiezko botoa eskatu zuten eta ERC-k, PP-k eta ezker independentistak ezezkoa. Erroldaren %48.85eko parte hartzearekin, %73.24 baietz, %20.57 ezetz eta %5.34 zuri izan zen azken emaitza.

Zapatero: “Aceptaré el Estatuto que apruebe el Parlamento de Catalunya”

Konstituzioaren aurkako helegitea eta epaia:

- Alderdi Popularrak (PP), Herriaren Defendatzaileak (PSOE-ko Enrique Múgicak) eta Aragoiko, Balear Uharteetako eta Valentziako Gobernuek konstituzio aurkakotasun helegitea jarri zuten.
- 2010eko ekainean epaia eman eta aldaketak asko egin ziren, hainbat artikulua ez-konstituzionaltzat hartu ostean.


Euskadiko Erkidegoaren estatutu politikoa berritzeko proposamena (2004):

- Eusko Legebiltzarrak gehiengo osoz onartu: 39 alde, 35 aurka
- Espainiar Kongresuak gehiengo osoz baztertu: 313 aurka, 29 alde


6. PROCES ETA KRISIA 2011-GAUR EGUN

- 2010 Konstituzio Auzitegiaren Epaia.
- 2012ko Diada: Catalunya nou Estat d'Europa.
- 2014ko azaroaren 9 “Kontsulta: prozesu parte hartzailea”.
- 2015eko iraila: hauteskunde peblizitarioak.
- 2017ko urriaren 1: Erreferenduma.
- 2017ko urriaren 27: Aldebakarreko Independentzia Aldarrikapena.
- 2018: Euskal Estatus Politiko Berrirako Akordioa.

FEDERALISMOA ETA ESTATU MOTAK



ESTATU FORMAK BOTERE POLITIKOAREN LURRALDE ANTOLAKETA



Federalismoa: gobernu maila bi dituen komunitate politikoaren antolaketa self rule (autogobernua) eta shared-rule (elkarbanatutako gobernua) printzipioetan oinarritzen denean.

Adostasun federalak: hitzarmen federalaren forma zehatzak:

- Federazio simetrikoak.
- Federazio asimetrikoak.
- Konfederazioak.
- Estatu erregionalak

Federazio simetrikoak (ezagunena):

- Gobernu maila bikoitza
- Gobernu orokorrean parte hartu
- Gatazken kudeaketarako organoa
- Federazioaren akordioa ezin da aldebakartasunez apurtu.
- Kooperazio mekanismoak:
- Simetrikoa deitzen da unitate federatuen autogobernu maila eta azken hauek federazioarekin duten harremana antzekoa delako (uniformea eta simetrikoa denean).
- Adib. AEB

Federazio asimetrikoak:

- Erakunde egitura antzekoa. Ezberdintasun nagusia ?
- Asimetria politikoa eta konstituzionala ezberdindu behar dira.
- Asimetria konstituzionalak eta autogobernuaren praktikan sorturiko asimetriak ezberdindu.
- Adostasun asimetriko zehatzak. Normalean lurralde txiki bat Estatu handi batekin elkartu: Federacy-ak (AEB eta Puerto Rico), estatu asoziatuak, akordioa aldebakartasunez hautsi daiteke (Zelanda Berria eta Cook Uharteak).

Konfederazioak:

- Federazioek estatu bat sortzen duten bitartean Konfederazioetan nazioarteko akordio (tratu) baten bidez estatu ezberdinak komuneko helburu batzuk lortzeko elkartzen dira.
- Ohiko helburuen artean, integrazio ekonomikoa eta segurtasun militarra handitzea topatzen ditugu.
- Konfederazioek ez dute Estatu berri bat sortzen: kide diren estatuen erabakien menpe dago bere funtzionamendu eta garapena.
- Maila konfederalen hartzen diren erabakiek zeharka eragin konfederazioko herritarrei.
- Estatuak proiektu konfederaletik irteteko eskubidea.
- Adibideak urriak: Estatu Independenteen Erkidegoa (SESB ohiaren zati bat), Karibeko Komunitatea.
- Adibide historikoak: Suitza, (1291) edo Ipar Amerikako Estatuaren Konfederazioa (1776).

Estatu erregionalak:

- Aurretiaz unitarioa den Estatuetan.
- Zentroaren deszentralizazio baten ondorioz sortzen dira: ez dago unitateen arteko akordiorik.
- Normalean legegile eta exekutiboaren deszentralizazioa: judiziala ez.
- Erregioek ez dute konstituzioaren erreforman parterik hartzen.
- Ez dago federalismo fiskalik.
- Erregioek ez dute alor ekonomikoan sakoneko erabakirik hartzen.
- Adibideak: Italia, devolution osteko Britainia Handia.

Adostasun federalaren adibideak:

Ejemplos de acuerdos federales en las democracias liberales contemporáneas

Estados regionales	Federaciones simétricas	ACUERDOS FEDERALES ASIMÉTRICOS			Confederaciones
		Federaciones asimétricas	Federaciones	Estados asociados	
<ul style="list-style-type: none"> - España* - Italia - Portugal - Reino Unido 	<ul style="list-style-type: none"> - Alemania - Argentina - Australia - Austria - Brasil - Estados Unidos - México - Sudáfrica - Suiza 	<ul style="list-style-type: none"> - Bélgica - Canadá - India - Malasia 	<ul style="list-style-type: none"> - Dinamarca - Islas Farøe - Finlandia - Islas Aaland - Reino Unido - Jersey 	<ul style="list-style-type: none"> - Francia - Mónaco - Holanda - Antillas - India - Bután - Italia - San Marino - Nueva Zelanda - Islas Cook - Suiza - Liechtenstein 	<ul style="list-style-type: none"> - Comunidad de estados independientes - Comunidad del Caribe

* Con algunos elementos federales.

Requejo, 2009: 84

ESTATU AUTONOMIKOAREN FASEAK

Autonomia estatutuak eta euren funtzioa

- Arau sortzailea: Erkidegoak sortu.
- Oinarrizko arau instituzionala: Erkidego Autonomoaren erakundetzea eta bere eskumenak definitu.
- Konstituzioari subordinatua, honen osagarri lana (143.1 eta 147.1 art) egin: Estatuaren lurralde antolaketan osagarri zuzena. Konstituzio blokearen parte da.
- Estatutuen onarpen bikoitza egiten dute parlamentu autonomikoak eta Gorte Orokorrak. Ondoren erreferenduma (bide moteleko estatutuek ez).

Gogoratu!

143.1: “En el ejercicio del derecho a la autonomía reconocido en el artículo 2 de la Constitución, las provincias limítrofes con características históricas, culturales y económicas comunes, los territorios insulares y las provincias con entidad regional histórica podrán acceder a su autogobierno y constituirse en Comunidades Autónomas con arreglo a lo previsto en este Título y en los respectivos Estatutos.”

147.1: “Dentro de los términos de la presente Constitución, los Estatutos serán la norma institucional básica de cada Comunidad Autónoma y el Estado los reconocerá y amparará como parte integrante de su ordenamiento jurídico.”

Autonomia Erkidegoen eskumenak:

- Konstituzioak zenbait eskumen definitzen ditu baina estatutuei erreferentzia egiten die hauek zehazteko erkidegoaren eskumenak.
- Printzipio orokorra: Erkidegoek bere gain hartzen ez dituzten eskumenak estatu zentralaren eskumen izango dira.
- 149.1 artikuluan Estatuaren eskumenen zerrenda. Intentsitate ezberdina:
 - Eskumen eskusiboak: nazioarteko harremanak, defentsa, moneta sistema etab.
 - Estatuak gaitasun legegilea baina betearazpena Erkidegoen esku.
 - Estatuak oinarrizko legedia diseinatu eta erkidegoek garatu eta betearazi.

Eskumenen inguruan gatazkak ugariak izan dira. Talka egin duten bi joera daude: birzentralizazioa eta eskumen gehiago lortzeko edo daudenak blindatzeko joera

Autonomia Erkidegoen erakundeak:

Erkidego guztietan komunak diren erakunde nagusiak: Erkidegoko presidentea/lehendakaria, Parlamentua eta gobernuak. Izaera politiko ordezkatzailea dute, zilegitasun herritarra hauteskunde bidez.

Oinarri horretatik abiatuta erkidego bakoitza era ezberdinean antolatu daiteke: legebiltzarraren tamaina, hauteskunde barrutiak, administrazio eta gobernuaren antolaketa, beste mailako erakundeak (euskal kasuan Foru Aldundi eta Batzarrak) etab.

Hauteskunde bidez Parlamentua osatzen da hark erabakitzen du presidentea eta gobernuak.

Parlamentu autonomikoen zereginak	Presidente eta gobernu autonomikoen zereginak
<ul style="list-style-type: none">- Lege autonomikoak eta Aurrekontu Legea- Inbestidura, konfiantza eta zentsura mozioa- Gobernuaren kontrola- Zenbait erakundetako izendapenak	<ul style="list-style-type: none">- Presidenteak ordezkaritza funtzio protokolarioak- Exekutibo autonomikoak- Gehiengo parlamentarioak kontrolatu- Lege autonomikoen proposamena egin

Administrazio autonomikoaren egitura

- Sailek ministerioen rola eta sailburuek ministroena.
- Probintzia bakarreko autonomietan hauek diputazio probintzialen funtzioa bete.
- Euskal lurraldeetan: Lurralde historikoen egitura federala ahalbidetu.

Botere judiziala (Konstituzioaren 122.art. eta 2/2015 LO).

Autonomia Erkidegoak langileen administrazioaz eta botere judizialaren baliabideez arduratzen dira, baina ez dago autonomia judizialik. Botere Judizialaren Kontseilu Orokorra da nagusi: Gobernu autonomikoek ez dute gaitasun erabakitzailerik, botere judizialaren zenbait elementuren kudeaketara mugatzen dira.

Konstituzio Auzitegia botere zentralaren eta erkidegoen arteko gatazkez eta erkidego ezberdinen artean sortzen direnez arduratzen da. Ohikoak dira gatazkek.

EK 159:

“1. El Tribunal Constitucional se compone de 12 miembros nombrados por el Rey; de ellos, cuatro a propuesta del Congreso por mayoría de tres quintos de sus miembros; cuatro a propuesta del Senado, con idéntica mayoría; dos a propuesta del Gobierno, y dos a propuesta del Consejo General del Poder Judicial.

2. Los miembros del Tribunal Constitucional deberán ser nombrados entre Magistrados y Fiscales, Profesores de Universidad, funcionarios públicos y abogados, todos ellos juristas de reconocida competencia con más de quince años de ejercicio profesional.

3. Los miembros del Tribunal Constitucional serán designados por un período de nueve años y se renovarán por terceras partes cada tres.

4. [Incompatibilidades]

5. Los miembros del Tribunal Constitucional serán independientes e inamovibles en el ejercicio de su mandato.”

Finantzaketa autonomikoa:

Orokorra edo komuna:

- Elkarbanatutako zergak.
- Lagatutako zergak.
- Funtsak: bermeen funtsa (fondo de garantías), nahikotasun globala (suficiencia global) eta konbergentzia funtsak.

EAE eta Nafarroakoa:

- Erakunde foralek zergak ezarri eta bildu.
- Estatuari kupoa ordaindu, honek hurrengo arlotan egiten duen inbertsioaren %6.24a:
 - Estatu zentralaren eremu eskusiboak: Defentsa, Kanpo Harremanak, Koroa etab.
 - Estatutuaren arabera itzulita egon beharko liritekeen eskumenak baina oraindik Estatu zentralaren eskuetan daudenak: kartzelak, gizarte segurantzaren kudeaketa etab.
 - Konstituzioak ezartzen dituen elkartasun klausulen finantzazioa (lurraldean arteko konpentsazioa fondoak)
 - Estatuaren zor publikoa eta interesen ordainketa.
- Kupoa: (EAE-ren esku ez dauden eskumenak – Adostuta ez dauden sarrerak) x 6.24 %


Kanarietan arrazoi historiko eta geografikoengatik erregimen ekonomiko eta zerga erregimen berezia (adi: ez da BEZ-a aplikatzen.).

Ceuta eta Melillak autonomien finantzazioan eta ogasun lokalen finantzazio erregimenean parte hartzen dute. Zeharkako zergetan erregimen berezia (ez da BEZ-a aplikatzen).

Autonomismoaren ezaugarriak eta federalismoarekin aldeak:

- AA.EE ez dira gune konstituziogileak
- Botere legegilearen banaketa iluna da
- Botere judizial autonomorik ez
- Konstituzio Auzitegia
- Senatua ez da lurralde ordezkartzarako gunea
- Zerga autonomiarik ez (kontzertua salbu)
- Europan ordezkartzarik ez
- Konstituzio-erreforman parte hartzerik ez

Autonomien estatura perspektiba konparatua



Federazio eta estatu erregional uninazionalak (denak simetrikoak): Australia, Austria, Argentina, Alemania, AEB, Brasil, Hegoafrika, Italia, Mexiko, Suitza, Venezuela...

Federazio plurinazionalak: Bosnia, Belgika, Errusia, Etiopia, India, Kanada...

Estatu erregional plurinazionalak: Erresuma Batua (Espainia...)

4.GAIA: EUSKAL SISTEMA POLITIKOAREN SORRERA ETA GARAPENA

SARRERA: SISTEMA POLITIKOAZ

- Politikaren ikuspegi sistemikotik sare-ereduetara: Easton, Morlino eta Clegg/Jessop.
- Espainiako/Frantsiako eta Euskal Herriko sistema politikoak: historia, zuzenbidea eta zientzia politikoak, botere-harremanetan.

EUSKAL SISTEMA POLITIKOEN GARAPEN HISTORIKOA

- Estatu eta nazio eraikuntza historikoa Europan. Tillyren ekarpena. Espainiako ziklo politikoaren hipotesia eta gatazka ardatz nagusien bilakaera modernitatean.
- Euskal sistema politikoak: errebindikazioaren egitasmoak eta euskal konstituzio historikoaren bilakaera:
- Aita Larramenditik, eta 2003ko "Euskadiko Erkidegoaren Estatutu Politikoaren Proposamenetik, EAEko estatus berrira.

EUSKAL ESTATUGINTZA. ERAKUNDEAK EUSKAL HERRIAN

- Euskal erakundeak eta hauen botereak:
- Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroako Foru Erkidegoa eta Euskal Herriko Elkargoa.
- Euskal federalismoa: Foru Lurraldeak. Eskumenen banaketa. Kontzertu ekonomikoa eta euskal zerga-autonomia.

SISTEMA POLITIKOAZ



Euskal sistema politikoaren oinarriak eta nazio eta nazionalismoaren sorrera aztertuko dugu.

Euskal sistema politikoak:

- Euskal berezitasun politikoaren errebindikazioa: bilakaera historikoa
- Euskal sistema politiko garaikidearen erakundeak: EAE, Nafarroa, EHE
- Euskal sistema politikoaren dinamika: ideologiak, alderdi sistemak eta gizarte eragileak



Gurean, prozesu historikoaren motorrak



A. Ibilbidea: Euskal demokrazia federalak, state building gisa, euskal demosaren eraikuntza ekarri du (nazioarena ere, neurrian). Euskal demos horren sorrerak demokraziaren sakontzea ekarri du, subsidiarietatearen printzipioaren adierazpen huts legez. Nation building klasikoaren politika publikoek garrantzi gutxi izan dute horretan. Nazionalismoak, adiera horretan (“euskal moduan”) demokrazia areagotzen du. “Osakidetza da Euskal nazionalismoa”.

B. Ibilbidea, aurrekoarekin tentsioan. Nazio eraikuntzak (politika publiko “nazionalistak”, borroka simbolikoak, nazio-hizkuntz-komunitateren garapenak) ekarri du euskal demos-aren sorrera, autogobernua (state building prozesua) suspertu duena. “D eredia da euskal nazionalismoa”

Nazioa eta Estatuak: ibilbide historikoak.
Nazionalismoa: politika liskartsua

Nazioa: Estatuaren politika publikoa...



MICHAEL BILLIG
(Banal Nationalism)
[Adbideak...](#)

Nazioa: ekintza kolektiboa, mugimendua...

Galdere bakarra da bi prozesuetan:

Nork (agintea) agintzen du non (lurraldea) eta noren (demos) izenean?

Horrek lotzen du demokratizazioa nazioagintzarekin: ez dago demokraziarik demos "nazionalik" gabe.

Nazionalismoari hurbilketa klasikoa:

1. Aurretiazko etnizitatea
2. Nazio-interes osaketa aurre-politiko: komunitate izaera
3. Identitate politiko zabalagoa
4. Mugimendu nazionalista...
5. Autodeterminazio eskubidearen egikaritzea eta Estatu aldarrikatzen duena.

Estatu-nazioen nazionalismoa, aldiz: 1,2,3,5,4

“Nazioa” gizarte mugimendu bezala (Maiz :

1. Aurre-baldintza etniko-sinboliko aukeratuak
2. Gizarte aurre-baldintzak: interes komunen osaketa
3. Aukera politikoen egitura egokia
4. Mobilizazio politikoa: antolaketa eta diskurtsoa, nazioa bera, identitate kolektibo gisa, osatzen duena.

Iberiar Penintsulako estatu eraikuntza historikoa azaltzen digu ondoren:


- Hastapenetan Baskonia, Asturias eta Kordobako Emirerria
- XI.mendeak zenbait zatiketa hegoaldean, Iruñeko Erresuma eta Antso Handia
- Nafarroako Erresuma XII-XIII mendeetan:



- Berde argia: Nafarroak Gaztelaren aurrean galdutako lurraldea (1198-1200)
- Behe Nafarroako iparraldea: basailutza bidez lortutako lurrak (1196-1203)

XVI.mende hasieran, Gaztela eta Aragoik Nafarroako Erresuma konkistatu.

Estatu eraikuntzaren ibilbideak Espainiako Estatuan





XIX-XX mendeetako Espainiako sistema politikoaren bilakaera ziklikoa (ikus 18. orrialdeko eskema)


Espainiako Estatu eta nazio eraikuntzan zenbait eztabaidagune egon dira. Nagusienetako bat arazo nazionala, nazio batasunaren eta aniztasunaren arteko gatazka, alegia.

EUSKAL SISTEMA POLITIKOEN GARAPEN HISTORIKOA

Euskal aldarrikapen nazionalaren bilakaera historikoa:



EUSKAL ABERTZALETASUNA XIX-XX



XX. mende hasierako mugimendu autonomista:

- Liga Foral Autonomista, 1905.
- Diputazioen ekimenak, 1917-1919.
- EAJren bilakaera

II. Errepublikako autonomismoa

- Eusko Ikaskuntzaren aurregitasmoa, 1931.
- Lizarrako Estatutua, 1931.
- Gestoretako Estatutua. 1932-1933.
- Euzkadiko Estatutua. 1936.

1979ko Estatutuaren gakoak:

- Kontzertu ekonomikoa. 40/41 Art.
- Ertzaintza 17. Art
- Hezkuntza eta Kultura 6, 10 Art.
- Lurraldetasuna bideratzeko modua 2/47.2 Art
- Eskubide historikoak eta erreserba. 1 XG

Autonomia Estatutuaren erreferenduma egin zen EAEn 1979ko urriak 25ean. Konstituzioren legitimitate defizita, partzialki zuzendu zen EAEnko Autonomi Estatutuaren onarpenarekin erreferendumean. Parte-hartze tasa mugatua izan arren (%55), Estatu espainiarreko beste zenbait nazionalitate historikok lortutako babes baina gehiago izan zuen, ia %90 aldekoekin: Katalunia (eroldaren %52) edo Galizia (eroldaren %20).

Abstentzioaren alde HB, HASI, LKI...

Ezezkoaren alde AP, UN, Falange

Baiezkoaren alde EAJ, PSOE, EIA, EE, PCE...

IV. Xedapen iragankorra:

1. Nafarroaren kasuan, eta berori Eusko Kontseilu Nagusian edo horren ordezkari izango den euskal autonomia-araubidean sar dadin, Konstituzioaren 143. artikulua ezartzen duena bete beharrean, foru-organo eskudunak izango du ekimena; organo horrek erabakia hartuko du, bera osatzen duten kideen gehiengoz. Ekimen hori baliozkoa izan dadin, nahitaezkoa izango da, gainera, foru-erakunde eskudunaren erabakia referendumen bidez berrestea; horretarako beren beregi deialdia egin beharko da, eta, baliozkotasunez emandako boto guztietatik, gehienek onespina eman beharko dute.

2. Ekimenak aurrera egiten ez badu, hori ezin izango da errepikatu foru-erakunde eskudunaren agintaldi berean, beste batean baizik, eta, edozein kasutan, 143. artikulua ezartzen duen gutxieneko epea igaro arte.


Garaiko negoziazioen ondorioa bada ere, gaur egun gatazkatsua izaten jarraitzen duen xedapena da.

Euskadiko erkidegoaren estatutu politikoa berritzeko proposamena egin zen 2004an. Eusko Legebiltzarrak gehiengo osoz onartu zuen: 39 alde, 35 aurka. Espainiar Kongresuak gehiengo osoz baztertu: 313 aurka, 29 alde




Euskal ziklo politikoa garaikidea

Bide insurrekzional-autodeterminista



Bide autonomiko-forala


EUSKAL ESTATUGINTZA: Erakundeak Euskal Herrian
Euskal erakundeak eta euren botere nagusiak



Legebiltzarraren funtzioak:

- Legegilea: arrunta, laburtua, deszentralizatua, irakurketa bakarrekoa eta aurrekontukoa.
 - Aurrekontukoa: gobernuak urtero onarpena behar du, lehenetsua, luzapenaren aukera eta Legebiltzarrak ahalmena soldata publikoekiko.
- Kontrola eta sustapena: Lehendakaria hautatzea, zentsura mozioa eta konfiantza-mozioa, politika orokorreko eztabaidak, interpelazio eta galderak, gobernuaren komunikazioak, agerraldiak, legez besteko proposamenak.
- Bestelakoak: izendapenak, AKEan errekurtsioak, Arbitraje Batzordean gatazkak, erreformak proposatzea, gobernuaren lankidetzak akordioak eta hitzarmenak kontrolatzea...

LEGEGINTZA-FUNTZIOA EUSKO LEGEBILTZARREAN




GOBERNUAK EUSKAL/ESPAINIAKO SISTEMA POLITIKOAN

	EAEko LEHENDAKARIA	NAFARROAKO PRESIDENTEA (Gobernua/Foru Diputazioa)	ESPAINIAKO PRESIDENTEA
OSAKETA	<ul style="list-style-type: none"> -Legebiltzarreko Presidentearen hautagai-proposamena, taldeekin bildu eta gero. -Programaren aurkezpena. -Gehiengo osoa (38), eta 24 ordutan gehiengo soilia. Hautagai desberdinen artean, lehena (Ezezko botonik ez) -Erregearen izendapena.* -Gehiengorik ez balego, 60 egunetan, desegin eta hauteskundeak.* EAEko EST. 29-33 art. *Berrespena. AKE 5/87 	<ul style="list-style-type: none"> -Legebiltzarreko Presidentearen hautagai-proposamena, taldeekin bildu eta gero. -Programaren aurkezpena. -Gehiengo osoa (26), eta 24 ordutan gehiengo soilia. -Erregearen izendapena. -Gehiengorik ez balego, 30 egunetan, desegin eta hauteskundeak.* (LORAFNA 29. Art) *Lehen, izendapen automatikoa 	<ul style="list-style-type: none"> -Erregearen hautagai-proposamena, taldeekin kontsultak egin eta gero. -Hautagaiaren gobernu-egitasmoaren aurkezpena Kongresuan eta konfiantza-eskaera -Gehiengo osoa (176), eta 48 ordutan, gehiengo soilia. Baiatzko gehiengo, ezezko baino -Erregearen izendapena. -Gehiengorik ez balego bi hilabeteetan, desegitea eta hauteskundeak. (K. 99. Art)
KONTROLA	<ul style="list-style-type: none"> -Galderak eta interpelazioak. -Konfiantza-galdera: gehiengo soilia. -Zentsura-mozio eraikitzailea: Legebiltzarraren seirenak eta hautagai alternatiboa. Baita Saiburuaren aurkakoa.* -Gehiengo osoa. -Galtzen bada, bultzatzaileek ezin dute beste bat aurkeztu urte bereko bi sesio-aldietan. JL 7/1981 45-49 Art. Eta araudia. Hau eta ekimena/desegitea, araudietan dauden zehaztapenekin osatu... 	<ul style="list-style-type: none"> -Galderak eta interpelazioak. -Konfiantza-galdera: gehiengo soilia. -Zentsura-mozio eraikitzailea: Legebiltzarraren bostenak eta hautagai alternatiboa. -Gehiengo osoa. -Galtzen bada, bultzatzaileek ezin dute beste bat aurkeztu sesio-aldi horretan. -(LORAFNA 35. Art) eta araudia. 	<ul style="list-style-type: none"> -Galderak/interpelazioak. -Konfiantza-galdera: gehiengo soilia. -Zentsura-mozio eraikitzailea: Kongresuaren hamarrenak eta hautagai alternatiboa. -Bost egun aurkezpenetik, lehen bi egunetan hautagai alternatiboak aurkeztu daitezke. -Gehiengo osoa. -Galtzen bada, bultzatzaileek ezin dute beste bat aurkeztu sesio-aldi horretan. -(K. 108-116. Art) eta araudia.

Eusko Jaurlaritzako gobernuak: EAJ nagusi, Lopez salbuespen. Aliantzak EA, PSE, EE...

Nafarroako gobernuak: aldakortasun gehiago UPN-PSN eta "Aldaketaren gobernu". Eredu kontsoziatiboa garatzeko zailtasunak, PSNren iritzi aldakorra, ustelkeria (PSN/UPN), Alderdien birrantolaketak (UPN-CDN, EAJ-EA-GeroaBai...), "Estatu politika"...



Lurralde historikoen eskumenak:

1979ko autonomia estatutuko 37, 41, 42. artikulua eta 1983/27 Legea, Lurralde Historikoei buruzkoa.

(Foru arauak ez dira Legeak, erreglamendua dira)

Eskumen eskusiboak:

- Autoeraketa
- Lurralde-mugarritzea
- Lurralde historikoetako eta udaletako ondasunak
- Udal mailako hauteskunde errejimena
- Errepideak
- Zerga sistema (Estatuaren zerga egituraren baitan eta hitzartutako zergei dagokionean): arauketa, kudeaketa, bilketa.
- Besteak: mendiak, nekazal lurren babesa, obra publikoak, kultur-azpiegiturak, udalei aholkularitza...

Garapenerako eskumenak:

- Nekazal garapena
- Animalia-osasuna
- Arrantza eta ehiza ustiaketa
- Ur publikoen polizia
- Ondare historikoa
- Kirolaren sustapena

Eskumen betearazlea: BETEARAZTEA

- Gizarte laguntza
- Garapen komunitarioa (Hirugarren adina, Emakumea, Gazteria)
- Natura-eremuen kudeaketa
- Urbanismoa

Botere judizialaren egituraketa Espainiako Sistema politikoan

